



ARGIA

Noain 1521

NAFARROAKO ERRESUMAREN AZKEN AUKERA

#2.739 | 2021 / 07 / 04 | 3,90 €

22-27. orriak



Txertoa hartu ala ez erabakitzeko galdegaiak

28 | COVID-19



Mendian korrika, "eboluzio naturala"

32 | KIROLA



"Ez ditut hondakinak sortu nahi"

44 | VERDE PRATO

2. argitaraldia



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHUko irakaslea

MARRAZKIAK:

Eñaut Aiartzaguena

15€

Bidalketa gastuak: 4 €

Eskaerak: azoka.argia.eus / 943 37 15 45

 ARGIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
XABIER SAGASTA

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOA
- 18 | MAIALEN BERASATEGI
- 19 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | IÑAKI MURUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ASIER LARRINAGA
- 54 | BERANDUEGI



28 | COVID-19 TXERTOAZ

Osakidetzako mediku honek bere gurasoei aholkatu die txertoa hartzeko, eta berak ez hartzeko hautua egin du. Zertan oinarritu da erabaki bata eta bestea hartzeko?

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Biodibertsitatea sustatzeko mundua berriz basati uzteko ideia mito batean oinarritua da, zientzialari kritikoek ustez

Pello Zubiria

12 | PERTSONAIA | IOSU OSTA

“Jendea bere etxean bakartzen ari gara eta bakardadeak hiltzen gaitu”

Reyes Ilintxeta

22 | HISTORIA | NOAIN 1521

Nafarroako erresumaren azken aukera galdua

Urko Apaolaza

32 | KIROLA

“Mendian korrika egiteak lehia sustatu duela esatea ez da justua”

Jon Torner

36 | EUSKARA | IMANOL EPELDE

“Euskaraz hitz egiteko, erabaki politiko bat hartu behar da”

Ander Balanzategi

45 | KULTURA | ANA ARSUAGA

“Nire bizitza izan daitekeen anekdota ez zait arterako interesatzen”

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jarraipena

Amerika, europarren konkista, inperialismoa eta genozidioa kate bereko begiak dira. Baina, sarri, jatorrizko herrien egiazko hondamena gertatu zen konkistatzaileengandik askatu eta gero. Patagoniatik Kanadaraino gertatu da, Amerikako estatu ustez independente horiek garatu dituzte jatorrizko amerikarren aurkako politika genozidak. 500 urte eta gero, oraindik orain, ezin sendaturik darrai kolonialismoaren jarraipenak. Igaro den astean 751 hilobi aurkitu dituzte Kanadan barnetegi batean. 1863 eta 1998 artean, 150.000 adingabe indigena baino gehiago etxetik aterarazi, eta basatiak zibilizatzeko 139 "ikastetxe" horietan sartu zituzten.

📷 B. NELMS / CBC 📝 AXIER LOPEZ







ESKUALDEKO HAUTESKUNDEAK

Eskualdea, ezkerrean

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Beste behin ere, 1998tik Akitania Berria eskualdeko presidentea den Alain Rousset sozialistak irabazi ditu hauteskundeak, botoen %39,51 eskuraturik bigarren itzulian. Parean zituen lau lehiakide: botoen %19,11 bildu dituen eskuin muturra, zentro-eskuina (%14,19), ekologistak (%14,19) eta Macronen alderdiari loturikoa (%13,01). 183 aulkietatik 101 aulki ditu beraz gehiengoak, 26 aulkirekin oposizioko lehen indarra delarik eskuin muturra. Aitzineko kargualdian ez bezala, hemeretzi kontseilari dituzten ekologistek ez dute aldi honetan adostasunik lortu Roussetekin gehiengotik aritzeko.

Lehen itzulian bezala, emaitzak ezberdinak izan dira Ipar Euskal Herrian, ezkerre indartsu kokatuz eta eskuin muturra azken geldituz. Roussetek bozen %36,80 lortu du, Nicolas Thierry ekologistak %20,39, Genevieve Darrieusecq macronistak %15,05, zentro-eskuineko Nicolas Florianek %14,59 eta eskuin muturreko Edwine Diazek %13,19.

Akitania Berrian bezala, orokorrean Frantziako Estatu osoan du LREM Emmanuel Macron presidentearen alderdiak zaplaztekoa bildu. RN eskuin muturraren porrota ere begibistakoa da, eta nonbait sorpresa ere, boterera heltzeko esperantza handia bazuten ere, azkenean ez dutelako eskualde bakar bat ere irabazi hauen hautagaiek. Europe Ecologie-ko ekologistak pozik agertu dira, 2015ari alderatuz hiru koiztu dituztelako jasotako botoak.

Aldi honetan ere abstentzioa bizi handia izan da, %63,43koa (lehen itzulian %64,04koa). Emaitzak baloratzeke orduan, parte-hartze eskas horri buruz kezkatu agertu da Rousset bera ere, Frantzian gehiegizkoak diren zentralismo eta jabanismoari lotuz herriarren eta bozketen artean dagoen arrakala hau. ●

DEPARTAMENDUKO HAUTESKUNDEAK

Bi abertzale Pauen

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

EH Bairen ordezkari Annie Poveda urruñarra eta Iker Elizalde hendaiarra sartu dira Pirinio Atlantikoetako departamenduko kontseilura, Hendaia-Euskal Kostaldea kantonamenduan gailendurik. Ezkerreko abertzaleen koalizioak botoen %52,9 lorturik, garaile atera da hauteskundearen bigarren itzulian, orain artean Pauen egondako sozialistek lekua harturik. Ipar Euskal Herriko hamabi kantonamenduetarik zazpitan egon dira abertzaleak bigarren itzulian eta Hendaia, Urruña, Biriatu biltzen dituen Hendaia-Euskal Kostaldean dira soilik irabazle atera, nahiz eta guztietan lehen itzulian baino boto anitzez gehiago bildu. Duela sei urte Alain Iriart Hiriburuko auzapez abertzaleak bigarren aldikoz irabazi zuen kantonamendua ez du bere eskuetan atxiki aldi honetan EH Baik: Maider Behotegi eta Marc Saint-Esteben zentro-eskuindarrak atera dira garaile botoen %60,66 bilduz. Orokorrean, lortu emaitzak baikorki baloratu ditu EH Baik: "Urte luzeetan kolektiboki eramandako lanaren emaitza da".

Beste behin ere, eskuinak eta zentro-eskuinak osaturiko taldea atera da garaile departamendu mailan bezala Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdin. Ipar Euskal Herriko 24 kontseilarietatik 22 izanen dituzte, sozialistek azken kargualdian zituzten sei aulkia galdu dituztelarik eta ezkerreko ordezkari bakarra abertzaleena bilakatzen denean. Paueko 54 hautetsietatik 38 dira eskuinaren eta zentro-eskuinaren artean osaturiko Forces 64 taldekoak. Alderdi Sozialistaren porrot aipagarriena Baiona 3koa izan da, Henri Etcheto departamenduko oposizio buruak Florence Dupreuilhenkin batera osatu hautagaitzak galdu duelako bigarren itzuliko lehia, 29 bozengatik bakarrik. Haatik, Jean-Jacques Lasserre departamenduko gaur egungo buruak errazki irabazi du Bidaxune-Amikuze-Ozti-barre kantonamenduan, Anne Marie Brutherekin batera, bozen %63,49 lorturik, parean zituelarik EH Baiko Emilie Dubois eta Xabi Larralde bikotea, 2.659 boz lorturik –lehen itzulian baino 968 gehiago–. Hori horrela, ezustekorik ez bada behintzat, hirugarren aldiz lotuko zaio presidente kargualdiari.

Lehen itzulian baino parte-hartze pixka bat handiagoa izan bada ere, abstentzioa izan da garaile nagusia bigarren itzulian ere: %59,87koa izan da. ●



Ai, ardoa




ARITZ GALARRAGA

Plinio zaharraren pasarterik maiteena, aldiz –ezagutzen dizkiodanen artean, noski, ez baititut *Naturalis Historia*-ko 37 liburukiak irakurri-, ez da pasa den zutabeen aipatu genuen zazpigarren liburuko hogeita laugarren kapitulua, hain justu oroimenaz ari dena, baizik eta hamalaugarrena, osorik hamalaugarren alekia, mahasti, mahastizaintza, mahatsaren hartziduratik sortzen den zukuaren arteaz diharduena: *Ardoaren liburua*. Duela ia 2.000 urte idatzia, ardogintzari buruzko antzinako eta garrantzitsuenetakoa, garaiko jakinduria guztia barnebiltzen du.

Egia da pasarte batzuetan gehiegizkoa dela informazioa, azkenerako mozkortzen zara hainbeste erreferentzia, adibidez egiten badu mahats mota guztien zerrenda; baina kontrara baditu pasarte gozo askoak, guztiak ere erromatar munduaren bizimodu pribatu nahiz publikoaren erakusleak, sarri gureen harrigarriro antzekoak. Aipatzen baditu kontsumo ohiturak, debekuak, erabilera terapeutikoak, eta ez bakarrik arimarenak. Heriotzaren gertutasunarekiko sendagai gisa erabiltzen baitzen. Jendea biziberritzen zuen. Neurrian hartuta beti ere. Bestelakoan, "biharamunean hatsak zahato kiratsa dauka, eta ahanztura hegaldatzen da gauza guztien gainetik: hila da memoria".

Ai, ardoa. Gizonaren –eta emakumearen, noski– enganioa. Badakit udan sartu berri garen honetan akaso aiseago sartzten zaigula zerbeza, edo sangria; ez ahantz ordea ardoa dela askotarikoa, Plinioren arabera zuri, hori, odol, beltz, are gehi diezaiokezu ezta. Baina jakin edaten baduzu ari zarela barneratzen mende luzeetako jakinduria, Odisean jada agertzen dena, Biblian, are Jesusek berak bultzatzen gaituela: "Har ezazue guztiok eta edan honetatik". Ardoa edatea zibilizazio egintza baita. Paper zentrala izan du humanitatearen etapa zein geruza sozial guztietan. Eta doan lekura doala, basakeria zegoen lekuan, kultura hedatzen du. Neurrian hartuta beti ere. Edo ez, tarteka. ●



"GAY NAIZELA ESAN NAHI DUT. IKUSGARRITASUNA INPORTANTEA DA"

CARL NASSIB, FUTBOL AMERIKARREKO JOKALARIA

Sexu askapenaren hilabetea ospatu den honetan, gizonezkoen kirol munduan hain ezohikoa den pausoa eman du Nassibek, armairutik ateratzeak kirolariak idolotzat dituzten haur eta gazteei lagungarri gerta dakiekelakoan. Lehenengo aldia da futbol amerikarrek jokalaria bat armairutik atera dena NFL ligan. "Tristea da, une honengatik agonia sentitu dut azken hamabost urteotan. Duela gutxi, eta nire familiari eta lagunei esker, publikoki eta harro esan ahal izan dut gay naizela." **2021/06/22**

EKONOMIAREN TALAIAN

Solidarioak eta beharrezkoak



JUAN MARI ARREGI

Euskal Herrira goseak, gerrak edo jazarpenak bultzatuta iristen diren migratzaileak, borrokekin, droga trafikoarekin edo lapurretekin nahasi ohi dituzte sarritan albistegiek; gutxitan nabarmentzen dira haien jarrera solidarioa erakusten duten albiste positiboak, joan den astean Bilbon gertaturikoa bezalakoak. 72 urteko gizonezko bat Ibaizabalera erori zen eta lau pertsonak salto egin zuten salbatzeko. Horietako hiru afrikar migratzaileak ziren.

Gerora jakin dugunez, pateratan iritsi ziren hona, beraien bizitza arriskuan jarrita –urtea hasi zenetik *paradisuraino* iritsi nahian 1.850 migratzaile hil edo desagertu dira itsasoan–. Hain justu errefuxiatuaren nazioarteko egunean gertatu zen aipaturikoa, Hego Euskal Herrian ehunka pertsona elkartu zirenean “Migratzaileak ez daude soberan, arrazistak bai!” eta “Legezko ibilbide segurua orain!” oihukatuz.

Migratzaileek denok ditugun eskubide berak dituzte, eta gure ekonomiaren, gizartearen, ongizatearen eta pentsioen etorkizunaren parte dira. Erakundeak jabetu behar dira eskubide horiek errespetatuz hartu beharko genituzkeela, ghettorik sortu gabe, bizikidetzaz sustatzeko neurriekin, dela burokrazia erraztuz, dela lan bila ari diren bitartean diru-sarrerak bermatzeko errenta emanaz. Zentzu horretan, giza trafikoa- ren inguruan dabilten mafien aurka gogor egitea ezinbestekoa da, migratzaileen ahultasunaz baliatzen baitira “patera pisuetan” sartu eta haien bidez dirua lortzeko –eskulan merke gisa erabiltzen dituzte eta irabazitako sos eskasak lapurtzen dizkiete–.

Arrazoi solidarioengatik ez bada, gutxienez ikuspegi berekoi hutsetik interesatu beharko litzaiguke milaka migratzaile horiei harrera duin bat egitea, bizikidetzari begira ez ezik, gure etorkizun ekonomiko eta sozialaren oinarria baitira. ●

ANALISIA



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

Errezetatuko didazu antzerkia, mesedez?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Olatukoope Saretze Eguna ekainaren 25ean Aiaraldeko Ekintzen Faktorian. Hortzak zorrozuta utzi gaitu euskara ardatz izanik hamaika kultur ekimenez oso goxo egokitu duten pabilioiak. Kulturarekin batera, bizitzari ere egiten dio leku gainera: umeen aisialdia, elikadura eta lantokiak ere uztartzen ditu, guztiak euskaraz.

Goizean Olatukoopeko kide diren hango eta hemengo proiektu ederrak ezagutu ondoren, jantoki bihurtu da ordura arte antzoki zitzaigun espazioa. Launaka jarri gara eta gure mahaian Herri Bixi antzerki taldeko kide bat tokatu da, bertako jakiekin prestatutako bazkari ederrari gatza eta piperra gehitu diona bere elkarriketa eta ateraldiek.

Pandemiaren moduko momentu larrietan kulturak ematen diguna hartu dugu hizpide. Itxialdi gorrian ginenean, etxeari eusteko oinarri sendoena horixe izan zela, kultura modu zabalean ulertuta: ohiturak eta praktikak lantzea, behar emozionalei elkarrekin bide ematea, umoreari eta jarrera eraikitzaileari eusteko formato guztiak baliatzea... Urtebete lehenago Ondarroako zaharrekin egin zuten antzerki obraren esperientzia azaldu digu Herri Bixiko kideak: nola sortu zuten elkarrekin testua haien egunerokotasunetik, eta elkarrekin entseguak egiteak zer bizitza sozial ekarri zien, azkenik herriaren aurrean bakoitza zeharka-zeharka bere bizitzako pasarte bat agertzea iritsi zen arte. Kulturak osasunean ondorio agerikoak eta zuzenak dituenek, familiako medikuak errezetatuz beharko lukeela ondorioztatu dugu, jada ardo beltzak gero eta esaldi irmoagoz adieraztera bultzatzen gaituen postre garaian. “Hil behar badugu, ondo hil gaitzela! Horretan ere laguntzen digu kulturak, heriotza nola bizi nahi dugun pentsatzen” batek, “eta noski, nola bizi nahi dugun planteatzen...” besteak, “niri sormenak jarrera eraikitzailea ematen dit, errealtate gordinen aurrean irtenbideak asmatzen jartzen nau, ez egonean geldi, gure esku ezer ez dagoela sentitzeak ematen duen etsipenarekin” hirugarrenak.

Topa dagigun kulturagileen alde, Herri Bixiren moduko ekimen herrikoiaren alde, eta topo egin dezagula udan jaien ordean udalek antolatutako ekimenetan. Eta noizbait galdetu beharko diogu gure buruari egun zerk galarazten duen herri ekimenez kultur jarduerak antolatzea, eta arazo horri zirrikituak nola bilatu, ezta? Instituzionalizatutako kultura soilik izatea ez baita herri osasuntsu baten seinale. ●

Estrasburgok Espainiaren aurka ebatzi du, Tasio Erkizia zigortzeagatik

ERREDAKZIOA

Europako Giza Eskubideen Epaitegiak ebatzi du 2008an Jose Miguel Beñaran Argalari egin zitzaion omenaldian ez zela terrorismorik goretzi. Hori egotzita Tasio Erkizia Batasunako buruzagi ohia epaitu eta urtebeteko espetxera eta zazpiko inhabilitaziora zigortu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Espainiako Estatuak zigortu du Erkiziari kalte materialen kontzeptuan 6.000 euro ordaintzera eta beste 5.000 kosta eta gastu kontzeptuan.

EBAZPENA

Europak ebatzi du ez zegoela harreman zuzenik Erkiziak egun hartan egin zuen diskurtsoaren eta biolentzia sustatzearen artean, eta gainera, ezker abertzalearen helburuak bide demokratikoen bidez lortzeko mezua zabaldu zuela.

ERKIZIAREN DISKURTSOA

Bere diskurtsoan, Erkiziak gogoeta eskatu zuen "aukeratzeko biderik egokiena, Estatuari minik handiena egingo diona eta herri hau agertoki demokratiko berri batera eramango duena".



ALVARO MINGUITO / EL SALTO

REPSOL MULTINAZIONALAREN KONTRA

MADRIL. Rebelión por el Clima erakunde ekologisten koalizioko ehun bat ekintzailek Repsol multinazionalak Madrilgo Móstoles hirian duen ikerketa zentroaren sarrera blokeatu zuten, ekainaren 21ean. Petrolio enpresa hori munduko krisi klimatikoaren arduradunetako bat dela iritzita, erregai fosilen erauzketa, erretzea eta ekoizpena geldiarazteko eskatu diote ekintza ikusgarri baten bidez.

KLIMA LARRIALDIA

30 urte barru ezin izango zaio aurre egin klima larrialdiari, Lurraren temperatura bi gradu gehiago igotzen bada. Hori saihesteko, neurri zorrotzagoak behar direla ohartarazi du Nazio Batuen txostenak. Bestela, 130 milioi biztanle izango dira muturreko pobrezian, egun baino 80 milioi pertsona gehiago goseak, 400 milioi lagunek izango dute ur falta, eta 420 milioi herritarrek muturreko kanikulak sufririko dituzte.



INDEPENDENTZIA. Espainiako Gobernuak indultuak onartuta, kalean dira Kataluniako buruzagi independentistak. Espainian eta Kataluniaren arteko eztabaidetan aurrerapausoa da, Sánchezen arabera; amnistia eta beste erreferendum bat eskatu dute katalanek.



EUNEIZ. Baskonia eta Alavesen instalazioak handitu nahi ditu klub jabe den Josean Kerejetaren enpresa-taldeak, Gasteizen eraiki nahi duen Euneiz uni-bertsitate pribatuaren proiektua baliatuz. "Kirol turismoa" kontzeptua baliatu du Kerejetak.



PRESOAK. Didier Aguerre pagolarra ekainaren 24an irten da Lannemezango (Okzitania) presondegitik, hogeitaz kartzelan egon ondoren. 2001ean atxilotu zuten, ETako kide izatea egotzita. Hemezortzi urteko kartzela zigorra ezarri zion Frantziako justiziak.

BIODIBERTSITATEA SUSTATZEKO MUNDUA BERRIZ BASATI UZTEKO IDEIA MITO BATEAN OINARRITUTA DAGO, DIOTE ZIENTZIALARI KRITIKOEK

Biodibertsitatearen galera eta klimaren aldaketa konpontzen lagundu behar luke Lurreko eremu zabalak berriro basati garatzen lagatzeak, hala defenditu du luzaz ekologiaren korrante nagusiak. Aldiz, zenbait zientzialarik aldarrikatu dute natura aberatsagoa zeneko mundu hartan gizakiak ere esku hartzen zuela aspalditik. "Wilderness" ideiaaren inguruko eztabaida mahairatu dute, berriro ere.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Laborari ELB sindikatuaren aldizkarian Mikel Hiribarrenek "Natura eta laborantza, buruz buru ala eskuz esku" laburbildu du nekazarien eta kontserbazionisten arteko eztabaida. Mundu aberats osoan elkarte ekologistek aspaldi piztu eta berrikitan larrialdi klimatikoaren kariatz agintari askok –baita klima hondatzen duten multinazional ugariak ere– berenganatu duen *wilderness* delakoa da afera, alegia, gizakiak egin dituen sarraskiak konpontzeko planetaren eremu zabalak basati utzi beharra dagoela.

Nazio Batuen Erakundeak helburutzat ezarri du Txinaren lurraldea adinako eremua berreskuratzea naturari, mundu osoan gutxienez 1.000 milioi hektarea. Egia da *wilderness* kontzeptua ñabardura ezberdinez ikusten dutela horren sustatzaileek, baina denak ere oinarritzen dira historiaurrearen interpretazio batean: Lurrak duela mende gutxi arte gizakiak ukitu gabeko eremu zabalak zeuzkala eta oihan birjina haiek zirela biodibertsitate handienaren jabe. Hauxe da berriro auzitan jarri duena hamazazpi zientzialarik publikatu berri duten azterlanak.

Proceedings of the National Academy of Sciences (PNAS) zientzia aldizkarian Erle Ellis eta beste hamazazpi ingurumen zientzialari, antropologo eta arkeologok plazaratu dute *People have shaped most of terrestrial nature for at least 12,000 years* ("Gizakiak moldatu du lurreko naturaren zati handiena gutxienez azken 12.000 urteotan"), "bio-

dibertsitatea berdin basatia" formula berriro auzitan jarriz eta Antropozeno delakoaz dauzkagun aurreiritziak uzkailek. "Gero eta ebidentzia gehiagok erakusten dute –idatzi dute Ellis eta lan-kideek– gizakiaren jarduerak onura ekologiko iraunkorrek eragin dituela bere jokamoldearekin beste espezieei habitat berriak zabalduz, landareen aniztasuna handituz, ehizaren jasangarritasuna areagotuz, funtzio ekologiko garrantzitsuak burutuz haziak barreiatzean, lur-zoruaren elikagaiak ugartuz...".

Eta aurrerago: "Ehiztari-biltzaileek, hasieretako nekazariak eta artzainek sarritan partikatzen zituzten eremu berak eta hauen itxura egokitu zuten intentsitate ahuleko biziraupen praktika ugari bidez: ehiza, transhumantzia, bizileku mugikortasuna, landare ekoizpenerako erabiltzea lugorriak, labore aniztasuna eta zuhaitzen kimaketa. Horrela sortu zituzten lursail anitz, dinamiko eta emankorreko mosaikoak eta komunitate ekologiko berriak. Eskualde askotan mosaiko motako paisaia horrek milaka urtez iraun du".

PNASen argitaratutako ikerketak gezurtatzen ditu aurretik egindako modelizazioak, ziotenak duela 8.000 urte Lurraren %82 basatia zela. Ellis eta kolegek diote nekazaritza asmatu aurretik gizakiak naturan zeukan esku-hartzea gutxietsi zutela: "Ereduok hain ziren txarrak ezen eta arkeologoek ez baitzituzten beren lanean erabili nahi".

Arkeologoek demostratuztat jotzen dutenetik abiatuta, ageri da jada duela 12.000 urte gizakiak esku hartzen zuela planetaren eremuaren hiru laurdenetan, eremu epeletako basoen %95ean eta oihan tropikalen %90ean: "Gaur natural, ukitu gabeko edo basati jotzen ditugun eremu gehienetan ageri dira gizakiak esku hartu izanaren arrastoak". 12.000 urtean jarri dute muga, orduan amaitu zelako azken glaziazioa, gaur ezagutzen dugun naturari bide eginez.

KOLONOEN AURREIRITZIAK

Erle Ellisek berak sortutako *antroma* motak ("anthrome" ingelesez, gizakiaren esku hartzearen ezaugarri berdinak daukan eremua) oinarritzat hartuta, hiru kategoriatan sailkatu dituzte: eremu "basatiak", hots, batere gizakirik gabek; eremu "landuak", lurrazalaren %20 baino gutxiagotan nozitzen dituztenak giza jarduera intentsiboak; eta *antroma* edo habitat "intentsiboak", lurrazalaren %20 baino gehiagoan giza jarduera intentsiboak dauzkatenak (hiriguneak, aniztasun gutxiko labore alorrak, abeltzaintza intentsibokoak edo erregadiokoak).

Hiru ereduok praktikara ekarrita, adibidez, Amazoniako oihanaren gehiena bigarren ataleko *antroma* landutzat jotzen da, askok oker uste arren berez basatia dela. Aldiz, munduko gaurko landa eremu gehienak *antroma* edo habitat intentsiboak dira.

Historiaurrera joz, azterlariak aurkitu



PAPUA GINEA BERRIAN

biodibertsitate handienetakoa duen lurraldean, emaztea baratzean antzinako moldean, gaurko materialez egindako lanabes sinpleekin, oihan tropikalez inguratua. Argazkia: sciencemag.

dute duela 12.000 urte Lurraren %27,5 baizik ez zela erabat basatia; gainerako %72,5 ehiztari-biltzaileek eta nekazariak okupatzen zuten baina lurraren erabilera intentsiborik gabe. Gaur egun, aldiz, basatia lurrazal globalaren %19 da, gizakiak ez intentsiboki landua %30era murriztu da eta, aldiz, erabilera intentsiboa bilakatu da nagusi, %51.

Datuok, gero, biodibertsitatearen aberastasunarekin gurutzatu dituzte eta horra askorentzako ezustekoa: gaurko kontserbazio politikek ezarritako lehen-tasunei erreparatuz gero, bioaniztasunean aberats diren eremu gehienak aspalditik gizakiak jarduera ez intentsiboz landutako eremuetan daude.

Ikuspegi berri honek biodibertsitatearen historia bestela ulertzera garamatza. Horrela, biodibertsitatea ez da galdu

gehien bat lur basati birjinetan gizakia berrikitan sartu delako, baizik eta aspalditik gizakia bizi zen eremuetan lurraren erabilera intentsifikatu delako, hazkunde demografikoak, kolonizazioak, populazioaren lekualdatzeak, nekazaritza intentsiboak eta hiritartze-industrializazioak eraginda. Intentsifikazioak XIX. mende amaieran hartu zuen abiada eta batik bat 1950etik aurrera egin du jauzi historikoa.

Biodibertsitatearen galerak urrats handiak egin ditu historiako kolonizazio bakoitzean, Txinako bezala Erromatar inperioetan edo europarrek Amerika kolonizatzean. Ez da kasualitatea ikerlanaren atalburuetako bat deitzea "Biodibertsitatea dekolonizatu". Amazonian bezala Amerika osoan, Australian zein beste eremuetan... kolonoek eremu ustez basatiak aurkitu zituzten, haiek ulertzen ez

zuten moduan humanizatuta zeudelako, hau da, nekazaritza eta bilketa eredu ezezagunekin era ez intentsiboan landuak zeudelako. Kolonizazioak ekarritako intentsifikazioak –lekuko biztanleak beren jakintza guztiarekin desagerraraztearekin batera– eragin zuen hango biodibertsitatearen hondamendia.

Biodibertsitatearen dekolonizazioa beharko da Europa barruan bertan ere. Jada hasiak dira kalapitak, alde batetik daudela ustez biodibertsitatea handitze-ko lur eremuak erosi eta basati utzi nahi dituzten erakunde publiko eta pribatuak eta, bestetik, aspalditik paisaia horiek moldatuz bizi diren laborariak. Ala esan beharko genuke gatazka dela "naturaren zati direla ahantzi duten kolono kaletarren eta naturan txertatuta bizi ziren baserriar indigenen artean"? ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Iosu Osta

ETXEBIZITZA KOLABORATIBOEN BULTZATZAILEA



JENDEA BERE ETXEAN BAKARTZEN ARI GARA ETA BAKARDADEAK HILTZEN GAITU



Urtetan mugimendu sozial ugarian ibili da Iosu Osta, beti mundu justuago baten alde. Orain etxebizitza kolaboratibo edo *cohousing* proiektu autogestionatuetan buru-belarri ari da lanean. Iruñeko Etxekonak adinekoentzako komunitateko kidea da. Dena prest dute baina administrazioaren erantzun eskasagatik gehiegi ari da luzatzen kontua eta partaideek berandu baino lehen nahi lukete elkarrekin bizitzera joan.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Euskara noiz ikasi zenuen?

Iruñera irakasle-ikasketak egitera etorri nintzenean. Orduko Nafarroako Diputazioak maistra-maisuei aukera eskaintzen zigun euskara dohainik ikasteko eta gero hainbat euskaltegi ibili nintzen. Garai hartan ere nire izena aldatu nuen.

A eremuan hasi nintzen lanean Antsoainen eta hor AEKren sistema, metodo komunikatiboa, aplikatzen genuen haurrek euskara ikas zezaten.

Gero Berriozarrera joan nintzen eta erretiroa hartu arte han izan naiz DBHko Natur Zientziak eta, batez ere, Matematikak irakasten. Niretzat garrantzitsua zen eskolak ematen nituen tokian bizitzzea, betiko herriko maistra-maisuak bezala, eta horregatik bizi naiz Berriozar-

ren. Niretzako ikasleekiko harremana beti izan da garrantzitsuagoa ikasgaiak baino.

Zertarako erabiltzen zenuen abakoa klasean?

Ekuazioak ebazteko modu erraza da abakoa erabiltzea. Egokitu nuen sistema propio bat eta ikasleek zioten oso lagungarria egiten zitzaizela bitarteko bezala, batez ere zailtasunak zituzten ikasleentzat.

Matematikak zailak dira?

Niretzat ez. Orokorki gaizki irakasten dira, nire ustez. Gehiago ukitu eta jolastu behar da eta ez soilik ahalik eta formularik luzeenak arbelean idatzi. Mate-

matikak gaur egun oso garrantzitsuak dira eta gauza askoren oinarria. Ereduak sortzeko, informatikan... mila gauzatan erabiltzen dira. Niretzat oso interesgarriak dira buruketak. Problema bat arazo denean eta burua erabili behar duzunean soluziobidea aurkitzeko, hori da buruketa. Horri soluzioa bilatzea plazer bat da, baina oso gutxi lantzen da hau ikasgeletan. Ariketa hutsak egiten dira, eta haietan ez da prozesurik egin behar, formula aplikatzen duzu eta kito.

Geometria eta probabilitatea izaten dira liburuan beti azkenak agertzen diren gaiak eta denbora faltagatik askotan eman gabe gelditzen dira, oso politak izan arren. Matematikekin maitemintzen bazara betirako da.



Iosu Osta Jiménez

TUTERA, 1955



Maisua. Azken 20 urteetan Matematika eta Natur Zientzia irakasle izan da DBHn, Iruñerrian. Attac, PAH, Parlamentu Soziala eta Martes al Sol kolektiboetako kidea da eta Koobizitza, *cohousing* edo etxebizitza kolaboratibo sare berriaren sustatzailea. Haiku egilea da eta *Hatsa* aldizkarian argitaratu ditu bere lanetako batzuk.

Erronkak maite dituzu. Horregatik ibili zara beti gizarte mugimenduetan?

Bai. Politikan ez naiz ibili hor dagoen giroa ez dudalako gustuko. Politikari eskatzen diot desberdin pentsatzen dutenak integratzeko eta bat egiteko modua bilatzea, baina gaur egun hori ez da egiten. Gehiengoak pentsatzen duena egitea ez da demokrazia, 'gehiengokrazia' baizik eta hori ez zait interesatzen. Nik nahiago dut soziokraziaren sistema, erabakitzeko prozesu horizontal bat delako. Horrek *cohousing*-arekin badu zerikusirik, adibidez. Ardurak banatzen dira eta helburua da besteek proposatzen dutenaren aurka ez jartzea. Zu ez bazaude ados ez egin, baina utzi besteei egiten. Ez zaitetz besteentzako traba izan. Hori demokraziaren gehiengo baina interesgarriagoa da. Azken finean, zer da %51 alde izatea? Zer gertatzen da beste %49arekin?

Nirekin edo nire kontra jarrera ari da zabaltzen?

Ikaragarri eta nik gorroto dut dinamika hori. Fidelitatea ideiei zor diegu ez pertsonari.

Militantzian noiz eta nola hasi zinen?

Berriozarko auzo-lagunen elkarteetan eta parrokiaren. Katekesi taldeetan ibili nintzen oso gustura.

Fededuna zara?

Ez dakit naizen edo nintzen. Prozesu bat bizi izan dut eta batzuk esaten didate orain jarraitzen dudana ez dela kristautasuna, budismoa baizik. Nik ez dakit zer den. Ni naiz naizena, besterik ez. Etiketak jartzea arriskutsua da. Garrantzitsuena espiritualitatea da, barnekotasuna. Erlijioak tresnak baino ez dira. Espiritualitatera eramaten bagaituzte ongi, baina nik ez dut ezer jakin nahi zigorrekina eta bekatuekin. Eskolan ere barnekotasuna landu beharko litzateke. Elizak beretzat hartu du espiritualitatearen kontzeptua, baina pertsona guztiena da. Horren froga da berdin-berdinak diren ideia batzuk hainbat erlijiotan aurkitzen ditugula.

Gaur egun handitzen ari da Iruñean espiritualitatearen bila gabiltzanon multzoa. Horrek bai erakartzen nau. Zer egin gizarte hobea lortzeko, hori da hel-



burua, eta horretarako oinarria ekonomia da. Horregatik nago justizia ekonomiko globala aldarrikatzen duen Attac taldean, esate baterako. Merezi duelako mundu justuago baten alde lan egitea.

Eta nola dago egoera gaur egun, orohar?

Gaizki. Oso garrantzitsua da gizarte eredu, baina ahaztu gabe hori erabat lotua dagoela pertsona ereduarekin. Maiatzaren 15eko mugimenduan, adibidez, mundua aldatu nahi izan genuen, baina gu aldatu gabe eta hori ezinezkoa da.

Ekologiaren aldetik munduak ezin du horrela jarraitu. Gero eta gehiago handitzea da kapitalismoaren legea, baina bide horretatik jarraitzea ezinezkoa da, munduak ez duelako gehiago ematen. Gure benetako betebeharrak zeintzuk diren argi eduki beharko genuke eta ez lotu hainbeste dirua irabazteari. Munduko beste puntara bidaiatzea betebeharra da, Bardeak, adibidez, ezagutu gabe?

Azken bolada honetan tranpa egiten ari dira Europatik datorren diruarekin. Adibide bat: auto elektrikoa nahi dute bultzatu, baina bultzatu behar duguna garraio publikoa da, kalitatezkoa eta



merkea denontzat. Kontsumitzeko dinamika ustez berdean sartzen ari gara eta horrela ezin dugu etorkizunik izan. Etiketa berdea ikusita ez dugu ezer kritikatzan. Pandemiarekin ikasi dugun gauza bakarra da bolada batez etxean gelditzen, baina beste arazo handiago batzuk etorriko dira gero. Txarrena da ez dugula ikasi nahi eta hori gertatzen da espiritualitatea ez dugulako lantzen.

Egun ingurumenarena, emakumeena eta etorkinena dira arazo handienak. Hala ere, talde gehiegi daude gauzak egiten eta ez norabide berean. Mundua aldatu nahi dugun guztiok elkartu behar goguko genuke, gutxieneko oinarri batzuk adostuta.

Pandemiaren kudeaketa zer iruditzen zaizu?

Argi ikusi da nahi duten tokira eramaten gaituztela. Komunikabide handiak ez dira batere kritikoak. Pandemiak erakutsi du zer dagoen, adibidez, zahar-etxetan. Zahar-etxea kaka-zaharra da eta nik ez dut inor ezagutzen han bizitzeko gogo duenik, baina onartzen dute beste erremediorik ez dutelako. Horregatik etxebizitza kolaboratiboak oso garrantzitsuak dira.

Zergatik da hobea elkarrekin bizitzeko eredu hau?

Badakizulako sare bat duzula inguruan, zutaz kezkatzen diren pertsonak, zuri

laguntzeko prest daudenak. Ez zara bakarrik sentitzen eta hori oso garrantzitsua da.

Bakardadea gizarte antolaketa honen ondorio bat da. Jendea bere etxean baktzen ari gara eta bakardadeak hiltzen gaitu. Egoera hau dela eta, gero eta jende gehiago joaten gara mediku, apaiz edo psikologoarengana.

Zenbat proiektuk osatzen dute Koobizitza sarea?

Orain hamabost dira: Riojalar eta La Vereda Errioxan, Elkarbidean eta Abaraska Donostian, Txinalka eta Bizikooon Gasteizen, Egunsentia Bilbon, Ametxe Gordexolan eta zazpi gehiago Nafarroan. Artieda herrian dagoen Arterra Bizimodu eta Ziordiako Amarauna eko-herriak dira martxan dauden ekimen bakarrak eta ez dira adineko jendearenak. Hori polita iruditzen zait. Garrantzitsua iruditzen zait ikustea ez dela proiektu bat gerorako, zaharrak garenentzako zerbait.

Hemen Iruñean bi proiektu daude eta bietan adineko pertsonen zuzendutakoak: Etxekonak Bat eta Etxekide. Oso garatuta daude maila ekonomikoan, sozialean eta arkitektonikoan, baina udalaren inplikazioa falta da.

Garatzen ari diren beste proiektuak dira Bizikabi Iruñean, gazte eta familientzat, Irizarra Irunberrin eta Cohousing Rivera Navarra Tuteran. Alabaina, fenomeno berria dela eta, legeak ez daude



GEROKO GERO

“Etxekonak taldean 50 eta 70 urte arteko pertsonak gaude. Orain Nafarroako Gobernuak eskatzen digu erdia gutxienez 65 urtetik gorakoa izatea, interes sozialeko proiektu izendatzeko. Baina ni ez nago ados. Zer da zaharra izatea? Jubilatua egotea? Europan 55 urterekin gizarte proiektu batzuetan zahartzat hartzen dituzte. Orokorrean 60-65 urterekin oraindik gazte ikusten dugu geure burua, baina halako proiektuak adin horretan sustatu behar dira, ez 80 urte duzuenen eta jada indar eta ahalmenik ez duzuenen. Elkarrekin bizitzeko proposamen hau ona bada, ona izanen da 40, 60 edo edozein adineko pertsonentzat”.

egokituta. Ez dakite gu non kokatu eta horregatik administrazioak hitz politikak esaten dituen arren, aurrerapausoak oso eskasak dira.

Zer alde dago Lakabe bezalako herri komunitarioa eta ko-bizitza proiektu baten artean?

Cohousing-aren filosofia ez da komunitarioa. Gurean norberak badu aukera nahi duen neurrian autonomia izateko edo elkarrekin aritzeko hainbat alorretan eta jardueratan. Zure etxean zaude eta nahi duzuna jartzen duzu amankomunean. Gure ustez, bi ereduak onena hartzen dugu: harremana eta elkar zaintza da guk sustatzen duguna. Horretarako eta elkarbizitza arazoak ekiditeko, pertsona bakoitza zer egiteko prest dagoen zehaztu behar da hasieratik eta, aldi berean, gutxieneko betebeharrak ezarri.

Gero hasieran jarritako muga horiek gainditu edo moldatu ahal izango dira, baina antolatu behar da gutxieneko bat. Bestalde, ezin gara talibanak izan. Donostian komunitate bat desagertu zen desadostasunak zituztelako garbigailuaren inguruan, batzuek amankomuneko bat nahi zutelako eta besteek bakoitzak berea.

Betebeharrak ere argi zehaztu behar dira. Horietaz ari garenean eguneroko gauza arruntez ari gara, egunero norbaitekin periodikoa irakurtzeaz, botikak ekartzeaz edo otorduak partekatzeaz, adibidez. Argi duzu zaintza lan espezializatuak profesionalek egin behar dituztela, eta guztiok horren beharra izan dezakegula edozein momentutan.

Tutoretzapeko apartamentua gauza bera da?

Kanpotik antzekoa irudi lezakeen arren, tutoretzapeko apartamentuak eta *cohousing*-a ez dira gauza bera. Lehenengoan dirua irabazi nahi duen enpresa batek hartzen ditu erabakiak eta aktibitate batzuk antolatzen dizkiete egoiliarrei. Guk, aldiz, gure komunitateetako autogestioa eta elkar laguntza aldarrikatzen ditugu. Orain oso modan dago, baina edozein gauza ez da *cohousing*.

Nola dago gaia Europan?

Danimarkan, Frantzian, Suedian... proiektu oso interesgarriak daude. Dena den toki horietako gizarteak eta gurea oso desberdinak dira. Europako iparraldean estatua arduratzen da menpekotasun guztiez. Elkarbizitzarako ereduak egokitu behar dira, ezin dira kopia bideratu besterik gabe.

Nola doaz Etxekonak eta Etxekide, Iruñean bultzatzen ari zareten

kooperatibak?

Proiektu arkitektonikoak, ekonomikoak eta sozialak prest ditugu. Aurreko legegaldiko udala desegin aurreko azken bileran, talde guztiek aho batez adostu zuten halako ekimenetarako lau solairuko etxe multzoak onartzea. Hala ere oso mantso doa, ez diotelako lehentasunik ematen. Asko luzatzen ari da. Gobernuan ere, batzuk oso aldekoak izan arren, ez da aurreratzen.

Formula zein da, udalak lurzorua zuei lagatzea?

Guk eskatzen dugu orube bat erabiltzeko eskubidea. Udalak uzten dizu lursail bat 50 urtetarako eta denbora tarte hori igarota, itzultzen diozu orubea eta horren gainean eraikia dagoen guztia eta modu honetara udalak ez du ezer galtzen.

Erabiltzaileak ez gara etxebizitzaren jabeak izango. Jabea beti kooperatiba da eta erabiltzaileak pertsonak. Jendeari etxebizitzaren batean bizitzeko eskubidea bermatu nahi diogu, ez etxe bat izateko eskubidea. Etxe hauekin ezin da espekulatu eta ezin dira ondorengoei oinordetzan utzi. Hau ezinbestekoa da gure filosofiari eusteko.

Hori nahi dugu, baina pentsatzen ari gara agian azkarragoa izan daitekeela erostea, nekatuta eta nazkatuta gaudelako jada. Garestiagoa izango da eta batzuk kanpoan geldituko dira, baina agian irtenbide azkarrena izan daiteke.

Herri batera joatea pentsatu duzue?

Izan liteke, baina gure artean egindako inkestetan jendeak dio Iruñean bizi nahi duela, zerbitzu eta kultur eskaintza gehiago dagoelako.

Administrazioarentzat ere ona da halako elkarbizitza eredu, ezta?

Jakina. Askoz merkeago ateratzen zaio jendeak elkar zaintzea zahar-etxeak egitea baino. Zahar-etxe pribatuak ez dira soluziobide egokiak, haien asmoa dirua irabaztea delako, besterik ez. Eta hori aski garbi ikusi dugu pandemia garaian.

Zu zergatik zaude honetan?

Gure betebeharrak asetzen dituelako eta orain arte eraman dugun bizitza motarekin jarraitu nahi dugulako. Harremanek ematen dizute aberastasuna, eta gure ahalmenak amankomunean jarri ahal izatea altxor bat da. Orain *cohousing*-aren barruan mendi talde bat berreskuratu da, adibidez.

Harreman berriak sortu nahi ditugu eta auzo-lagunen aldeko hartu-eman ona berreskuratu. Gaur egun harreman horiek hautsita daude, batez ere hiriguneetan. Nire pisu ondoko auzolagun bat hil zen eta ez nuen jakin urte bat pasa arte. Lasaitasuna behar dugu, freskura hartzera kalera atera eta auzokideekin lasai egon. ●



Euskal ekonomiaren tertziarizazioa



**BALAREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Eskuarteetan dut *El Libro Negro del BBVA. De la Oligarquía Vizcaína al caso Villarejo*, Oriol Mallók idatzia. Bertan argi geratzen da bizkaitar oligarkiaren ibilbidea. Izan ere, XIX. mendean Enkarterrietako mea egokia zen Ingalaterrako burdin oletan eraldatze-ko. Horretarako, garraio sistema egokitu zuten, Ibaizabalen itsasontzietan eramateko.

Garraio ontziek, hutsik etorri ordez, ikatza ekartzen zuten Ingalaterratik, Bizkaian sortzen ari ziren burdinolak hornitze aldera. XIX. mendearen erdialdetik aurrera, batik bat gerrate karlista amaitu ostean, burdinaren beharrezana izugarri handitu zen, trenbideak azkarki garatzen ari baitziren. Orduan sortu zuten Altos Hornos de Vizcaya.

Bestalde, espainiar koloniak galdu ostean, kapitalek etxerako bidea hartu eta 1901ean Banco de Vizcaya (BV) sortu zuten, Banco de Bilbaoren (BB) parean, baina bakoitzak bere bidea eginez. 36ko estatu kolpean Neguriko oligarkia Francorekin lerratu zen, eta negozio oparoak burutzen jarraitu zuen autarkia garaian (1939-1959). Horrela, BV enpresa elektrikoetan murgilduko da eta bere apustuetako bat Lemoizko zentral nuklearra eraikitzea izan zen; geroago Deban eta Ispasterren beste bi. Azkenean, euskal gizarte zibilaren eta ETaren borroka-

Estatua izango da,
80ko hamarkadan,
euskal oligarkia
erreskatatuko duena

ren ondorioz, Lemoiz gelditu zen. Baina gobernu zentralak, Franco desagertuta egonik ere, ondo konpentsatu zuen Neguriko oligarkia, itxierak sortu zuen zorra gizarte zibilari pasatu baitzion. Zentral nuklearraren porrotarekin Neguriko oligarkia galtzaile irten zen politikoki, baina ez ordea ekonomia ikuspegitik.

Gogoratu behar da Neguriko oligarkia Ibaizabal ezkeraldeko burdinola, ontzigintza eta enpresa elektrikoekin jabe nagusia zela. Enpresa horiek estatuko merkatu babestua hornitzen zuten, baina Europako Erkidegoan sartzeko enpresak birmoldatu behar ziren eta garai egokia izan zen enpresa horietako inbertsio andana berreskuratzeko. Beraz, estatua izango da, 80ko hamarkadan, euskal oligarkia erreskatatuko duena.


Ez da ahaztu behar BVk jauzi kualitatibo bat eman nahi izan zuela 60ko hamarkadaren amaieran Vizcaya Dorrea eraiki zuenean Bilbo erdian. Kapital biz-

kaitarrak nabarmen azaldu nahi zuten bere boterea, aurretik BBk Lope de Haro ibilbidean egin zuen antzera. Horrela, Bilbo, Madrilen pare, finantza gunetara bilakatuko zen. Bi bankuek bat egin ondoren hirugarren txiki bat elkar-tu zitzairen, Argentaria, eta, ustelkeriak medio, aginte makila Aznarren lagun batek hartu zuen, Neguriko oligarkia errentista moduan geratuz.

Finean, BVren egoitza iraganeko irudi gisa geratu zaigu eta Vizcaya Dorreak, euskal ekonomia dirdiratu zuenak, Primark arropa merkearen eta langile mileuristen zentro bihurtu dira. Iberdrola Dorrea geratuko zaigu bizkaitar oligarkiaren ikur gisa, non euskal erakunde publikoen laguntza jaso duen multinazional elektrikoak, nahiz eta gero, hidrogenoa ekoizteko orduan, Guadalajarara joatea erabaki.

Liburuan ikusten denez, bi mende-tako ibilbide ekonomikoa egin ostean, Neguriko oligarkiak produkzio bidea utzi du eta errentista izatera heldu da. Utzi dizkigun sektoreak merkataritza arruntarekin eta turismoarekin lotuta daude. Epe laburrean, Guggenheim II proiektua erabiltzen ari dira industria berriaren garapenaren porrota estaltze aldera. Soldata apalak, prekarietatea eta, epe ertain-luzean, industria ahultzea eta pentsio txiroagoak ekarriko dizkiguna. ●

Ez izan beti zu



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA

PAULA ESTÉVEZ

Jendea eta jendearen bizimodua manipulatzeko, bihurritzeko, bortxatzeko, urardotzeko, hutsaltzeko eta nahasteko biderik eraginkorrenetako bat hitzak manipulatzeko, bihurritzea, bortxatzea, urardotzea, hutsaltzea eta nahastea da. Jabetzen naiz hutsal samarra dela artikulua Pernandoren halako egia batekin hastea, eta jabetzen naiz prentsa-zutabegileak ituan behar duela *originaltasun* deritzon kontzeptu optimista, baina badut jaidura bat esan gabe doazenak esan eta errepikatzeko; barkatuko didazue kontraesana.

Barkatuko didazue, edo agian hobe ez. Zeren hain justu “Nire kontraesanak ditut” esatea bihurtu baita azkenaldian norbere trakeskerien, astunkerien, markurkerien zuribide goxo. Segur aski hasieran jende bihotz onekoari edo hiperkoherenteari hiperexijentziaren lasta arintzeko balio izan zuten hiru hitz onbera haiek gaiztotu egin zaizkigu nabarmen, nornahik noiznahi nolnahi erabilki: bizitzan behin plastiko zahar bat edukiontzia horira bota ez zuelako kulpante sentitzen den ekologistak bai, baina baita energia berdearen etiketa xuxenaren pean ingurumena modu *moderno* batean hondatuz patrika be-

rotzen duenak ere (bi adibide ausazko jartzearen, ausazkorik bada).

Kontraesan onargarrien guardasol hipertrofiatuaren gerizpe linguistikoa gainezka dago oraintxe. Inkoherenteak, inkoherentzia larriz bere burua ez ezik ingurukoak ere kakazten baditu, hortxe du guardasola eskura, eta hipokritak, zer esanik ez, lasai ederrean jardun dezake guardasol bat esku banatan, A esan eta B egin, “nire kontraesanak ditut”-ka.

Denean bezala, esalditxoak egoki eta neurrian baliatzea dateke gakoa. Neurri hori zehazki zein den nik ez dakit eta jakin uste banu ere ez nuke esango, baina: bada erdibiderik norbere burua etengabe jipoitzearen eta norbere buruari den-dena barkatzearen artean; hizkuntzaren tranpatxo eder ezinbestekoaren eta hizkuntzaren zepo galgarrien artean.

Izan ere, modako esaldi nartzisista-sortzaileen artean, bada bat are arriskutsuagoa, mukurua: “Izan zaitez zu zeu”. Hori ere, ziur asko, asmo on-enez sortua, baina betiko berbokrata aprobetxategiek higatua eta hutsaldua: jaiotzatiko aiurri itxuraz biologikoen zurigarri individualista. Edo sinpleago esanda: bakoitzak, besteen kaltean pentsatu gabe, nahi duenean nahi duena egin

eta esateko autobaimena. Esalditxo sugorriaren ondorioak, jakina, begi-bistakoak dira: besteak beste, xuxentasun politikoaren kontrakar ustez heroikoan “Ni halakoa naiz” lelo gisa hartu eta une oro sudur puntan jartzen zaiona egiten duen jendea, jende listoa. Zeren nor hasiko da, ba, halako *libertate*-aldarri puru bati buru egiten, noiz-eta libertate pertsonalaren adordaldi honetan, non-eta libertate pertsonalaren gurtegi honetan. (Beste atal oso bat mereziko luke *libertate* hitz urkatu, tirokatu, frijitu, gezikatu gaixoari egiten ari zaizkion, gatzazkion txandrio doilorrak...).

“Garena aldatzeko egiten dugun hori gara”, esan omen zuen Eduardo Galea-nok. Honezkerok, batzuk hasiak izango dira esaldi hori ere bortxatzen, bizimodu duina soil-soilik norbere esku dagoela aldarrikatzeko, hots, bizimodu duinik ez baduzu “zaren hori aldatzeko behar adina egin ez duzun seinale” dela kontentzitzeko. Baina gaitz erdi jatorrizko esanahiari nolabait eutsiko bagenio. Izan gaitzen gu geu, baina igual ez denbora guzti-guztian. Inork ez diezagula esan zer egin behar dugun, baina galde diezaiozun elkarri, maiz samar, zer egin dezakegun. Ez izan idisko: ez izan beti zu. ●

Gurdia



**AMANCAY
GAZTAÑAGA**
AKTORE ETA
ZUZENDARIA

– Hiru aste daramatzat egun bat bera ere deskantsatu gabe –Esan dit anaiak–.

Larunbat arratsaldea da, bere estudioan grabaketa batzuk egiten gabiltza. Neuk ere hilabete honetan egun bakar bat libratu izanaren karga sumatzen dut gorputzean. Maite dugu gure lana, apasionatzen gaitu.

Lokalera bidean emakume batek esan dit:

–Zeinen ondo bizi zareten e! Lasai, bu-ruhausterik gabe!

Entsegu batera gindoazen gu, barrez, lan egun baten ostean, ordainduko ez zizkiguten beste hiru orduz geure buruak trebatzera.

Maite dugu gure lana, apasionatzen gaitu.

– Zenbat gauza egiten dituzun, saltsa guztietan zaude!

Bai eta ez. Ez dira saltsak, nire ogibi-
dea da. Gauza ezberdinak egiten ditut
edo egin behar izaten ditut hipoteka or-
daindu ahal izateko.

Maite dugu gure lana, apasionatzen gaitu.

– Zuek beti oporretan!

Esan dit beste batek sare sozialetan,
lau egun Erikarekin Tafallan gure film la-
burra idazten pasa dugula ikusi duenean.

Maite dugu gure lana, apasionatzen gaitu.

Estresatuta nagoenaren kontzientzia,
amets batekin iritsi zait.

Festa zoragarri batean nengoen, jendea ongi pasatzen, ni lasai kopa bat eskuan. Bat-batean nire aurrean ia horma guztia betetzen zuen leihate bat agertu da: zeinen ederra beste aldean agertzen den basoa. Eseri egin naiz sofa eroso batean eta orduan agertu da bera, Regé Jean Page. Bai badakit... bat ezin da perfektua izan eta niri ere fikzioak imajinarioa pozoitu dit. Hortxe zegoen bera pozo horren enbaxadore: gizon heteronormatibo eta enpotradorea. Bale, pentsatu dut, gaur behintzat ametsetan ongi pasatuko dut. Bere besoak inguratu nau eta orduan... Orduan ni, hurrengo egunean egin behar nuen guztia kontatu diot Regéri. Diru-laguntza eskatzeko paperak prestatu, gauza baten bila joan autoz, idatzia errepasatu, arratsaldeko entsegua, gauen bilera online eta denbora ematen bazidan esku artean ditugun bi proiektuei begiratua eman. Eta berak orduan... Nekatuta sentitzen zela esan dit. Ez gaizki ulertzeko, maite zuela bere lana, apasionatzen zuela bere lanak baina gizartea ez zegoela prestatuta kulturgileei espazio erreal bat egiteko. Ez zegoela kulturara dedikatzen garenok babestuko gaituen politika bat. Eta esnatu egin naiz.

Ez gaizki ulertu, maite dut nire lana, apasionatzen nau. Baina gurdi hau kargatzeaz nekatuta nago. Kulturgileok babestuko gaituen politika erreal baten beharra dago. Ez bihar, gaur. Gu ere langile garelako, nahiz eta gure lanak apasionatzen gaituen. ●

Bakarrik



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Espainiako *El País* egunkariak elkarriketa egin zion Miren Arzalluzi, Palais Galliera Parisko Modaren Museoko zuzendariari. Elkarriketa galdera maltzurrez josita dago, modarekin zerikusi gutxi dutenak. Aurreiritziz beteta, Arzalluz Xabierren alaba delako. Kargu berean aita anonimoa duen beste bat egongo balitz, ez lizkiokete egingo. Alabari zuzentzen zaio galdetegiaren zati handi bat, erabat desegokia nire ustez. Itaun batzuek higuin puntu bat ere ematen dute, baina Arzalluzek egoki eta ondo egin die aurre. Primeran.

Beste galdera batzuk onartezinak dira.

Adibidez hau: *¿Está sola porque quiere estarlo?* (Bakarrik zaude nahi duzulako?). Halakorik! Bakarrik, ez duelako bikotekiderik! “Nahi duzulako” horrek, gainera, iradokitzen du ezin duela gizonik (beti hetero, jakina) lortu, edo ezin eutsi! Uf!

Emakumeok adin batera iritsita ez badugu bikotekiderik bakarrik gaude. Baina ez dut inoiz entzun harreman sentimental iraunkor bako gizoni buruz bakarrik dau-denik. Urrezko ezkongabeak direla, bai; bizizaleak, *playboy*-ak ere bai. Itzela.

2021ean, emakume kazetari batek. Zenbat dagoen aldatzeko! ●

Herio bizian!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Herio bizian, tximistak hartuta bezala, sartu zen teilapean babes bila". Ezaguna dut esaera baina heriotza bizitzarekin lotzeko joera dutenik? Egia da denok jaino garelako hiltzeko (orain artean behintzat) eta inor ez dela hazitarako geratu; ezta joandako inor etorri ere bestalde horretan zer dagoen kontatzera.

Orduan, zergatik beldurra? Ezezagunari diogun beldurra ote da heriotzak sorrarazten diguna? Zergatik bestela halako larria, estutasuna, izua, ikara... Aitona batek, bizitza nahierara disfrutatu eta zahartzarora hurbiltzean, elizara joaten hasi zelako, norbaitek esanik izango zion, "Hi ere elizara joaten hasi al haiz, majo aldatu haiz! Ez huen garai baten hain fede sutsurik bada...", eta erantzun omen zion federatutako aitona, "Orain ere ez diat fede handirik, baina infernu putakume horren beldur galanta, bai!".

Bizitza nahi baino azkarrago joaten omen eta neuk ere halaxe nioke, baina ongi bizi garenon kontua da hori. Minez,

Nik ez nioke inori
lanik eman nahi eta
hiletara joaten denari
tragoa eta mokadua
ordainduta utzi
nahiko nizkioke

triste, hits... bizi den hari ez zaio nahi orduko iritsiko herioak itzulerarik gabeko bidaian eraman dezan ordua. Berrogeitaka urte dira gure aitona joan zela eta azken urteetan maiz entzun nion, "Gure Jainkoa ahaztu egin al da nitaz? Zertan nauka hemen, hanka hankaren parean pasatzeko gauza ez naizela!". Ez da zertan esanik fededuna zela eta ingurukoei lana emateak eta bera zama soil izateak, bizitza antzu hark, bere belaunaldikorik eta bere garaiko kontuak bizitakorik gabe, zeinek entzuna izan arren... bakar-dade ilunean irudikatzen dut. Auzoko

aitonak, berriz, azken igurtzia ematera zetorren apaizari danba bertsoa bota eta seko. Izorrai eta martxa! Edo, familia osoa bildu bere ohe ingurura eta, "Helburua beteta daukagu, zuek denok zaretire nire izatearen arrazoia eta ez dut besterik behar. Bizitzaren legea da eta garaia heldu denez banoa", eta kitto, inguru hurbileneoak lasaituta eta nahi duenarentzat ikaskizuna utzita.

Ez zait sekula burutik pasa gaia heriotza duen bertso saiorik egin litekeenik, baina Donostian entzundako saioa bikaina izateaz gain, zer pentsatua denbora guztian ematen duen saioa da. Zer erritua nahiko nuke neure heriotzan? Lurreratu, lurperatu, erre? Erretzea ekologikoa ote da? Lurrari eta zizareei onik egingo ote diete nire okelak edo errautsek?

Nik ez nioke inori lanik eman nahi eta hiletara joaten denari tragoa eta mokadua ordainduta utzi nahiko nizkioke, umorez, elkartzen direnekin bertso zahar batzuk kantatuz, pasa dezala tarte gustagarri bat! ●

Basherrri
SAREA
GRUPOKO KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus


INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

LASARTE-ORIA


Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Noain 1521

Nafarroako erresumaren azken aukera galdua

Duela 500 urte Nafarroaren etorkizuna betirako baldintzatu zuen borrokaldia gertatu zen Noainen, Henrike II.a nafar monarkaren aldeko tropen eta Gaztelako nobleek gidaturiko armadaren artean. Historia isildua eta ahantzia izan da, baina gaur egun gero eta datu gehiago dauzkagu esateko nafarrak inbaditzaileen aurka altxa zirela, eta haien erresuma berreskuratzeko azken aukera galdua izan zela hura.

 URKO APAOLAZA AVILA



1 521eko ekainaren 30ean xake taula baten antza hartu zuen Noain eta Ezkirotz arteko goi lautadaxoak, Taxoare mendilerroak bere eskuetako bat lurrean leunki ezarrita duen toki horretan. Alde batean, tropa nafar eta frantziarrek, Asparrotseko jaunak gidaturik. Bestean, gudaroste espainiar inperiala, Haroko kondea, Naiarako dukea eta Gaztelako kondestablea buru zutela, euskaldun ugarik ere lagun-duta. Batean milaka peoi, zaldi eta alfil, bestean askoz gehiago. Kanoien keitsuak, zaldunen kargen zalapartak eta infanteriako piken odolak bete zuten arratsalde hartan zelaia. Ilunabarrean, lehenengoan porrot erabatekoa bistakoa zen, eta horrek Nafarroako erresumaren geroa baldintzatu zuen betirako.

500 urte igaro dira aurten Noaingo gudua gertatu zenetik, historialari gehienek aburuz Nafarroako konkistan izandako borrokaldi handi bakar eta garrantzitsuena, modernitatean sartzen ari zen Europako gerra taktikoen aurrekari. Hori gogoratzeko, beste urte batez hainbat eragilek

martxa antolatu dute Joxe Ulibarrena Getzen sortutako monumentutik abiatuta –jada hiru hamarkada dira sinbolismoz beteriko ekitaldia egiten hasi zirenetik–; aurten modu bereziagoan eta beste egun batean gainera, espainiar ultraeskuindarrek ere deialdia egina zutenez, haien "probokaziotik urruntzeko". Efemeridea ez baita bazterrean uztekoa. Noaingo borrokaldi hura izan zen Henrike II.a Albretekoak Pirinioez hegoaldeko nafar erresuma berreskuratzeko ukan zuen azken(aurreko) aukera –amaiera baten hasiera seguruenik– eta haren ondorio sozial eta politikoez luze irauten dute.

Baina bosgarren mendeurrena gogoratzeaz gain, urrats berri esanguratsuak egin dira aurten, gertaturikoa ezagutu, kontatu eta aitortzeko. Erresistentzia eta porrota soilik oroitu beharrean, bataila horren aurretik, 1521eko maiatzean Nafarroan izandako "herri-altxamendua" ere ekarri nahi izan da aktualitatera. Gainera, ikerketa historikoez datu berriak azaleratu dituzte, orain arteko kontaktuzuna zalantzan jartzen dutenak.

NOAINGO BATAILARI MONUMENTUA.

Iruñeko Getzen kokaturik, Noaindik gertu, Joxe Ulibarrena eskultore azkoiendarrak sortu zuen 1996an. Tamaina handiko obrak gerlari erraldoia irudikatzen du ezpata eskuetan duela. Toki horretan egin izan dira Nafarroako konkistari loturiko makina bat ekitaldi geroztik, eta Noain 500 urte plataformak ere ikurtzat hartu du bere karteletan.

FOKU / IDOIA ZABALETA



1521EKO MAIATZA: NAFARROA BERRIZ ALTXA ZENEOA

Fernando II.a Katolikoaren zerbitzura eta Gaztelako armada bere agindupean zuela, Albako dukeak 1512an Nafarroa inbaditu zuenean, Joanes Albretekoak eta Katalina Foixekoak Pirinioak gurtzatu zituzten, azken honen domeinuetako iparraldeko bizkonterrian babes-teko, Bearnon. Baina Nafarroa Garaira itzultzeko asmo irmoa erakutsi zuten hasieratik. Bederatzi urte geroago aukera hori sortu zen, komuneroen matxinadaren ondorioz Gaztelak armagizon ugari erretiratu behar izan zituenean Pirinioetako erreinu txikitik.

Urte horietan guztietan hamaika liskar, auzi eta jazarpen bizi izan ziren Nafarroan, eta erresumako zati hori errekupeatzeko tentaldi seriorik ere bai, 1516an Pedro II.a Nafarroako mariskalak Erronkarin barrera egindako saiakera kasu –erbestean atxilo zela aurkitu zuen azken patua, erresumari leial hiltzeraino–.

1521ean errege nafarrak hilda zeuden, eta haien oinordeko Henrike II.a

zangotzar gazteak harreman oso estua zuen Frantziako errege Frantzisko I.arenkin, bere koinatua izango zena. Frantzia determinaturik zegoen Espainiarekiko zituen diferentzia inperialak behingoz

Borrokaldi handi bezain odoltsua izan zen, zelaian zerraldo geraturiko noble nafarren zerrenda luzea ikusi besterik ez dago

gudu-zelaian kitatzeko; baina bi potentzi horien arteko mahai-jokoan Nafarroa fitxa bat besterik ez zela uste izatea, XVI. mende hasierako geopolitika konplexuaz ikuspegi mugatua edukitzea litzateke.

Nafarroa Garaian giro politikoa eta soziala gori zegoen. Espainiarren okupazioak eta urtetako errepresioak akituta, hango herritar eta leinuek –berdin beaumontar nola agaramontar– begi onez ikusten zuten Henrike II.aren itzulera, haien errege legitimoa. Hala, urte hartako maiatzaren erdialdean Asparrotseko jaunak zuzenduta tropa legitimistek Auñamendietako bortuak igaro orduko –Donibane Garazi menean hartu ondoren–, nafar hiribildu ugari armetan altxa ziren "Henri Henri!" oihukatuz.

Nafarroako erregeordeak ospa egin zuen Iruñetik, eta han utzitako goarnizio espainiarra gazteluan gotortu zen –Inazio Loiolakoa kapitaina buru, handik herritarrek bonbardatzen zituztela–, baina iruindarren erasoaren aurrean amore eman behar izan zuten azkenean. Egun batzuk geroago gauza bera gertatu zen Lizarran, eta hilabete eskasean Nafarroa osoa aske zen.

Maiatz hartan, Nafarroa "bere subiranotasunaren alde" matxinatu zela aldarrikatu du Nafarroa Berriz Altxa!



NAFARROA BERRIZ ALTXA

NAFARROA BERRIZ ALTXA mugimendu politiko berria sortu da Nafarroan, Noingo batailaren aurretik, 1521eko maiatzean, herritarrek matxinatu egin zirela gogoratu eta "XXI. mendeko Nafarroa" eraiki behar dela aldarrikatzeko, burujabetza eta askatasunetik.

mugimendu politiko sortu berriak. Altxamendua oroitarazi eta matxinaturiko herritarrak omentzeaz gain, gaur egun “burujabetza hori berreskuratze beharra” dagoela aldarrikatzea da ekimenaren helburua: “Askatasun oihu horren oihartzunak mendez-mendez dirau eta, gaur egun, gure artean darrai”, azpimarratu zuten apirilean manifestuaren irakurketa publikoa egitean. Hainbat ekitaldi eta mobilizazio egin dituzte geroztik –azkenekoa ekainaren 19ko Iruñeko manifestazio jendetsua–, Nafarroa “gorri eta intsumituaren” alde.

500 URTEKO ISILUNE HISTORIOGRAFIKOA

Herri altxamendu hartaz kasik ez da ezer idatzi azken 500 urteetan. Baina hilabete geroago gertaturiko Noingo batailaz iritsi zaigun kontakizuna ere apenas aldatu da denbora horretan, eta espainiar kronistek esandakoa errepikatzea mugatu dira historia libururak askotan: espainiar gudarosteak “frantziarren” inbasioari aurre egin ziola. Frantziar historiografiak porrot hura isildu zuen noski, eta nafar kronistak segituan lerratu ziren irabazleen aldera.

Nola da posible Nafarroako historiaren norabidea aldatu zuen egun hura hain isilik igaro izana duela 30 urte arte? Mendeetan zehar iraun duen jazarpen eta menpekotasun politiko eta kulturala kontuan hartu gabe ezin liteke ulertu halakorik. Pixkanaka, Noingo sarraskiaren atzeko argi-ilunak gero eta hobeto ezagutzen ditugu ordea, eta artxiboe-tan lorturiko azken datuek “kontakizun tradizioaletako garia lastotik banantzen laguntzen digute”, Peio Monteano historialari atarrabiarraren esanetan.

Monteanok ikertu du gehien Noaingo bataila. Nafarroako Errege Artxibo Nagusian –horko teknikaria da–, Simancaseko artxiboan eta Parisko Liburutegi Nazionalan egin duen sagulanaren emaitza da *Noain 1521. El fin del principio* (Noain 1521. Hasieraren amaiera) liburua. Azkenaldian berritasun eta informazio zehatz gehien ekarri duen obra da berea, eta historialariak idatzi duenez, “Noaingo batailaz beste errelato bati ekiteko” moduan gara orain.

NOAINGO BESTE KONTAKIZUNA

Andre Foixkoa jenerala, Okzitaniako Asparrotseko jauna, Ebro ibaia igaro

eta Logroñoeko atarian plantatu zen 1521eko ekaina hasieran, milaka gas-koi, nafar, bearnotar eta *jendarmez* –frantziar zaldun korazatuak– lagunduta. Nafarroatik espainiar tropak erabat egotzita, Gaztelako erreinuko hiri hura setiatu eta bereganatzen saiatu zen, kanpaina hartako garaipen arrastoari segika. Alferrik baina. Egunduz geroago Vianara itzuli behar izan zuen burumakur.

Arazoak hasi besterik ez ziren egin jeneralarentzat, hornidura faltak eta desertzioek larritu zuten egoera hortik aurrera. Hala, pixkanaka atzera egin behar izan zuen, komuneroen iraultzaren porrotak espainiarrei ahalbidetu zien bitartean euren ejertzito erraldoiak Nafarroarantz bideratzea. Espainiar kronikak diote gudaroste handi horren aurrean Asparrotsekoa korrika eta presaka bueltatu zela etorritako bidetik: “Frantsesek afaltzen zuten tokian, gosaltsen zuten espainiarrek hurrengo egunean”.

Baina Monteanoren arabera, mugimenduak askoz pausatuagoak eta estrategikoagoak izan ziren, hornitzeko denbora irabazi nahian. Asparrotsekoa ia astebez geratu zen Vianan, eta ondoren pixkanaka abiatu zen Erribera aldera, Iruñea eta Tuterara arteko bidea babesteko –okupatzaileek lurraldeko gotorleku gehienak deuseztatu zituzten aurreko urteetan–. Espainiarrek, berriz, lau egun geroago arte ez zuten Ebro gurutzatu, jeneral okzitaniarra urrunduz zenean.

Aitzitik, handik hiru astera maniobra bizkor batekin espainiarrek Erreniega mendizerra gurutzatu –ia biderik ez zegoen tokitik– eta Asparrotsekoa sorpresan harrapatu zuten. Nola lortu zuten halakorik? Badirudi ingurua ondo ezagutzen zuen Frances Beaumontek gidatu zituela, Faltsezko markesak, Alonso Carrillo Peraltakoak lagunduta. Peralta agramontar familiaren atzean beti egon da leialtasun faltaren eta “oportunismoaren” itzala, Monteanok liburuan dioen bezala. Naiarako dukeak eta enparauek “zelatari” bati esker izan zuten lehen momentutik Asparrotsekoaren mugimenduen berri; historialariaren arabera Faltzesko markesaren semea izan zitekeen aitari informazioa pasatzen ari zena, legitimisten aldean ari baitzen, ustez, borrokatzen.

Hala ere, giro gatazkatsu hartan ahai-deen arteko gorabeherak ez ziren, zu urdin eta ni gorri, partida batean beza-

Ibilbide kronologikoa

1521 / 04 / 23

Villalarko borrokaldian, Gaztelako Valladoliden, komuneroak garaituak izan ziren eta haien iraultza zapaldua.

1521 / 05 / 09

Ejertzito nafar eta frantziarra Nafarroan sartzen da Asparrotseko jaunak gidaturik.



1521 / 05 / 19

Iruñeko herritarren altxamendua espainiar tropen aurka. Aurreko eta ondorengo egunetan beste hainbat hiribildu altxako dira Henrike II.a nafar monarkaren alde. Nafarroa osoa aske da berriz.

1521 / 06 / 06

Asparrotseko jaunak Logroño setiatuko du, baina ondoren atzera egingo du.

1521 / 06 / 19

Tropa espainiarrek Viana hartu eta Nafarroan sartuko dira. Bigarren konkista hasten da.

1521 / 06 / 30

Noaingo bataila. Asparrotseko jaunaren gudarostea garaitua izango da eta soldadu ugari Iruñean babesteko dira.

1521 / 07 / 20

Donibane Garaziko gaztelua asaltatu eta sarraskituko dute Gaztelaren agindupeko soldaduek. Ondorengo asteetan gaztelua birrindua izango da.

1521 / 09 / 25

Henrike II.aren aldeko tropak berriz saiatuko dira Nafarroa Garaia berreskuratzen; Hondarribia eta Amairuko gazteluak hartuko dituzte.

lakoak. Espainiarrek bigarren konkista hori hasi zutenean, zenbait beaumontarrek haien alde jarraitu zuten –Leringo kondea buru–, baina leinu bereko beste hainbatek nafar erregearen kausa besarkatu zuten. Hor ditugu Iruñeko milizia zuzendu zuten Orkoioren familia edo gero Donibane Garaziko gaztelua defendatu zuen Joanikot Arberoa kapitaina (ikusiko koa-droa). Agramontarrak ere ikusi ditzakegu orain espainiarren ondoan komuneroen aurkako gerraren negozioan, orain Nafarroa espainiar inbasiotik defenditzen. Jarrerak eta jokabideak zail dira ulertzen denboraren makinatik batzuetan.

5.000 NAFAR HIL AL ZIREN?

Bere burua harrapaturik ikusita, nafar eta frantziar tropen buruzagiak borrokarako terrenoa prestatu zuen lehenbailehen Noingo lautadan, nahiz eta espainiarrek ia hiru aldiz gehiago izan kopuruz. Baina zer egin zezakeen? Mertzenario gaskoiek erruz desertatu zuten Logroñotik Iruñerako desmartzan eta Frantziako erregeak hitzemandako *lansquenete* alemaniarrek eta Henrike II.a Salbateran biltzen ari zen bearnotarrak ez ziren iristen. Horren aurrean, bere armada "nafartzea" erabaki zuen Asparrotsekoak.

Nafarrek erakutsia zuten borrokarako gaitasuna, egun batzuk lehenago Arakilen eta Lizarran inbaditzaileak atzera bota zituztenean. Orain, "etxe bat, gizon bat" deiaren bidez haietako 4.000 errekrutatu nahi zituzten. Kapitain nafarren inplikazioa erabatekoa izan zen eta herrietako milizia ugari batu zitzairen, baina beste asko oraindik bidean zen –uzta jasotzeko garaia izateak ez zuen errekrutamendua erraztu– eta badirudi erdia baino ez zela iritsi azkenean.

Hala, Monteanok emandako datuen arabera, ekainaren 30eko arratsalde sargori hartan, espainiarren aldean 2.000 zaldun eta 12.500 oinezko zeuden –horien herena inguru Bizkaia eta Gipuzkoakoak– eta tropa frantziar eta nafarren aldean, berriz, 1.200 zaldun eta 5.500 oinezko, artilleriako piezek lagunduta. Zaldun korazatu *jendarmeen* lehen kargaren ondorioz, hasieran legitimistak borrokaldia irabazten hasi ziren arren, arerioak kopuruz askoz gehiago ziren eta pixkanaka menderatuak izan ziren. Infanteria, pikak, suzko armak... XVI. mendean espainiar inperioaren nagusitasun militarra ekarri zuen teknologia bera erabili zuten, berdin Nafarroa konkistatzeko, nola Amerikan aztekek deuseztatzeko.



NAGUSITASUN MILITARRA. Noingo borrokalditik lau urtera eman zen Paviako batailaren irudi honen bidez imajina dezakegu gudu-zelaian zer jazo zen. Espainiar ejertzitoezko infanteriako tropak eta suzko armak erabiliz lortu zuten XVI. mendean nagusitasun militarra Europan eta Amerikan.

Kronika historiko ezagunenek diote 5.000 nafar eta frantziar inguru hil zirela Noainen, baina datu hori zalantzan jartzen du Monteanok. Garaiko informazio iturrien testuingurua azterturik, bere ustez hildakoak ez lirateke milara iritsiko seguruenik. Hala ere, garbi dago

Herritarrak oso egoera zaurgarrian zeuden, urte hartako uzta oraindik jaso gabe zegoelako eta aurrekoa lehorteak galdu zuelako

borrokaldi handi bezain odoltsua izan zela, zelai hartan zerraldo geraturiko noble nafarren zerrenda luzea ikustea besterik ez dago. Asparrotseko jauna bera ere larriki zauritua eta bahitua izan zen Frances Beaumonten eskutik, nahiz eta gero, honek bere burua arriskuan jarritz, errekonpentsa kobratu eta aske utzi zuen jenerala.

ARPILATZEA ETA ERREPRESIOA

Askoz okerrago pasa zuten errekonpentsarik kobratzeko dirurik ez zutenek, batailaren aurretik zein ondoren. Soldadu gaztelarrak gose ziren –koroak ez zuen dirurik haien soldadak ordaintzeko– eta Nafarroan barrena sartu ahala sistematikoki sarraskitu zituzten hemengo herriak, haien aldekoak izan edo ez: Viana, Mendabia, Lerin... "Bizilagunen oihuak zeruraino iristen ziren", idatzi zuen Martir de Angleria Errege Katolikoaren gortean ezagunak. Ekainaren 28an Lizarra menpean hartzean ere arpilatzea erabatekoa izan zen.

Pedro Esarte ikerlariak duela hogeita urte *Navarra, 1512-1530* liburuan bildutako datuek garbi uzten dute gerra hura Nafarroako "herriei, exiliatuei eta kondanatuiei" ezarritako zerga, zigor eta espoliazioen bidez ordaindu zela. Gainera, herritarrak oso egoera zaurgarrian geratu ziren, aurreko urteko lehorteak uztarik gabe utzi zituelako eta urte horretako jaso gabe zegoelako oraindik. Baina horiei gertaturikoa ez da liburu ofizialetan ageri, are gutxiago emakumeak badira.

Noain 500 urte plataformak efemeridearen harira antolatu dituen hitzaldietako batean, Amaia Etxenausia historialariak azaldu duenez emakume alargunen kopurua hirukoiztu egin zen urte horietan: "Alargun horiek XVI. mendeaz hitz egiten digute, konkistaren mendeaz. Burujabetza galdu genuen

Donibane Garaziko gaztelua eta Joanikot kapitainaren patua

Noaingo gertaeren ostean, eta behin Iruñea kontrolpean izanda, Donibane Garazi bihurtu zen gaztelarren hurrengo helburua. Behe Nafarroako hiria gotorleku garrantzitsu batek babesten zuen mende askotatik, eta 300 lagun inguru geratu ziren hura defendatzeko, Noaingo porrotetik hara iritsitakoak. Haien buru, Joanikot Arberoa kapitaina.

Baxenabartarra gaztetatik ibili izan zen armen negozioan. Maia Hozta-koarekin ezkondua beaumontarren leinuarekin ahaidetu zen eta 1512ko konkistan espainiarren alde borrokatu zen. Baina bederatzirte geroago Asparrotseko jaunaren ondoan ikusiko dugu Noainen nafarren kausa legitimista defendatzen, beste beaumontar asko bezala kamiseta aldatuta. Eta Donibane Garaziko gazteluaren ardura eman ziotenean, nafar soldadu leialez inguratu zen, hura heriotzara arte defendatzeko.

1521eko uztailaren 20an, Baionatik ere entzun zen bonbardaketa gogor baten ondoren milaka gaztelar eta nafar beaumontarrek gaztelu zaharra asaltatu eta hango guarnizioko soldadu gehienak basaki hil zituzten –harresitik behera botata–. Seguruenik proportzioan sarraskia Noaingo baino handiagoa izan zen.

Bizirik geratu zirenak Iruñera eraman zituzten preso, nahiz eta askok bidean ihes egin, Juan Remirez Bakedano-koa Ameskoako jaunak bezala.

Joanikot kapitaina heriotzara zigortu



ALLANDE SOKARRIOS

ZITADELA. Donibane Garaziko ikuspegia Mendiguren gaztelua zegoen tokitik. Gotorlekua birrindua izan zen 1521ean, eta ondoren eraikitako zitadela kokatzen da egun bertan.

eta uztailaren 26an Nafarroako hiriburuan barrena pasiatu zuten burdinazko hesi batean gainean arrastaka, pregoilariak zigorra bozgoran irakurtzen zuen bitartean. Urkatua izan aurreko azken hitzetan esan zuen ez zela traidorea, berak Nafarroako Erregeari baino ez ziola zin egin. Heriotza mantsoa eta krudela izan zuen sokatik zintzilik –seguruenik ez zelako jaiotzaz noblea–, eta ondoren bere gorputz zatikatua Iruñeko ateetan eduki zuten ikusgai. Kapitain fidelaren burua pikota batean jarri zuten. 2017an 'Juanikot' pastorala antzeztu zuten Al-

tzai eta Lakarriko herritarrek historia hori gogoratzeko.

Gaztelarrek segituen abandonatu zuten Donibane Garazi, Pirinioez bestaldean ez baitziren seguru sentitzen. Hango gaztelua esku batzuetatik bestera pasa zen hainbat aldiz aste horietan, batzuek su eman eta besteek birrindu, abuztuaren 14an tropa espainiarrek erabat deuseztatu zuten arte, Iruñera itzuli baino lehen. Hala, XII. mendetik Nafarroako erresumako sinbolo eta gotorleku estrategiko izandakoa betirako galdu zen.

prozesu instituzional gogor bat egon zen, aldarrikatu beharrekoa; baina ahaztu zaigu emakumeentzat are gogorragoa izan zela mende hori, estatu modernoek eta sistema patriarkalak erasoak izan zirelako eta etxeetara baztertu zituztelako; alargunak, gizonik gabe bizi zirenez, jomugan jarri zituzten, eta hori ere aldarrikatu behar da”.

AMAIERAREN AMAIERA

Noaingo batailaren bezperatan, Frantzisko I.a Frantziakoak Pariseko gortera deitu zuen Henrike II.a monarka nafarra, baina honek gutun bidez erantzun zion

Nabarrengosetik: “Nire eginbeharra betetzea erabaki dut”; bere erreinua defendatzeko ahal zuen guztia egingo zuela, alegia. Beranduegi ordea.

Etorkizunetik hurrengo hilabete eta urteetako sekuentzia kronologikoari fokua jarrita, Noainen galdutakoa hobekiago neurtu dezakegu orain segur aski: batailaren ondoren, tropa espainiarrek Donibane Garaziraino iritsi ziren Orreagan barrena, baina berriz erretiratu behar izan ziren. 1521eko irailean Henrike II.aren jarraitzaileek erresuma berreskuratzeko enegarren saiakera egin zuten, baina Amaiurko gaztelu eza-

gunean gotortuta geratu ziren, amaieraren amaiera iristen ari zen Nafarroako erresumarentzat.

Duela urte batzuk, 1512ko dataren hari-za izandako eztabaida historikoetan garbi geratu zen Nafarroa ez zela Gaztelako erreinuan “bere borondatez txertatu”, baizik eta indarkeriaz konkistatua izan zela. Noaingoaren 500. urteurrenean berretsi dezakegu ez zela izan “espainiar eta frantsesen arteko” borrokaldi soil bat, historiografia espainiarrak kontatu izan duen moduan, Nafarroak subjektu politiko bezala Aro Modernoan bere lurraldea legitimoki mantentzeko azken aukera izan zela. ●

COVID-19-AREN AURKAKO TXERTOIA

Txertatu ez den mediku bakan horren motiboak zein dira?

Herritarrok COVID-19aren aurkako txertoa hartu edo ez erabaki beharrea gaude. Aukerazkoa da bai, baina bi aukerak ez dira berdin onartuak eta zigortu/sarituak. Deliberatzeko, aldeko zein kontrako faktoreak jarri ohi ditu norberak balantzan: ezagun zaizkigu hartzearen aldeko motiboak, behin eta berriz errepikatuak politikari, hedabide, mediku eta kontrol soziala praktikatzen duten herrikideen aldetik. Aurkako zein motibo egon daitezke, norberak bere balantzan kontuan hartu nahi balitu?

Oraingoz txertorik hartu ez duen eta bere gurasoei hartzea aholkatu dien Osakidetzako mediku bati galdetu diogu bere hautuen zergatiaz.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Ez dago samur txertoa hartu ez duten osasun langileak elkarrizketatzen. Batetik, gutxiengo absolutua direlako eta bestetik, beren erabakia publiko egiteak arazoak baizik ekarriko ez dizkiela sentitzen dutelako. Osakidetzako lehen arretako mediku honek onartu du gurekin biltzea eta gure galderei erantzutea, baina bere izena eta irudirik eman gabe.

"Gaiarekiko iritzi kritikoa falta da", berretsi digu: "Osasun sektorea, gobernuak eta hedabideak zirrikiturik gabeko baiezko trinkoaren alde lerrokatu dira. Baina badira dudak, normala denez. Eta dudak ez agerira ateratzea, edo duda guztiak negazionisten kaxoira botatzea akatsa iruditzen zait". Bere inguruko osasun langileek eta berak txertoei buruz izan duten pertzepzioa denborare-

kin aldatuz joan dela azaldu du: "Iazko udazken eta negu hasieran, txertoak oso urrun zeudela zirudienean, lankide batzuen artean eszeptizismo handia zegoen, nola aterako zen zerbaite hain azkar hutsetik, eta ARNm mekanismoa darabilten txertoez hitz egiten hasi zenean beldur puntuarekin hartu zen eta duda dezente zegoen. Gabonak pasatze-ra gurasoen etxera joan nintzen eta orduan telebista asko ikusi nuen, normalean egiten ez dudana. Eta horrek asko eragin zuen nire erabakian. Gabonetan oso kanpaina indartsua egon zen, albisteetan etengabe esaten zuten txertatu beharra zegoela, duda minimo bat agertzen zuena errotz hartzen zen, txertoa mirarizko salbazioa bailitzan agertzen zuten... horrek guztiak asko haserretu ninduen. Baina uste dut beste lankideen-

gan aurkako ondorioa izan zuela: osasun kolektiboaren artean zegoen duda hori guztia urtu egin zen eta jendea berehala sartu zen bide horretan. Lankideen artean lehenago lasai agertzen nituen dudak adierazteak bat-batean beldurra eman zidan, konturatu nintzen jada ez zirela ongi-etorriak. Txertoa hartu ez dugun osasun langile kopurua anekdotikoa gara eta sekretuan eramaten da. Eta txertoa hartu nahi ez zuten asko taldeak presionatuta sentitu dira, dudarentzako tarterik ere ez zegoelako, debaterik ere egon ez zelako". Medikuek ez die bere ingurukoei adierazten txertoa hartu ez duenik: "Momentu batzuetan gaizki ere pasatu izan dut, galdetuko ote didaten kezkatuta eta galdetuz gero zer erantzun pentsatzen, badakidalako nire erabakia ez zela ongi hartua izango".

ZERGATIK ERABAKI DUZU EZ HARTZEA?

Txertoa oraingoz ez jarri izateko motiboez galdetu diogu: "Eragindako beldur giro horrek, koakzioak, bide bakarra zegoela ikusteak... sentitu nuen baldintza horietan ez diodala nire buruari hori egiten utzi nahi. Gero badago beste alde arrazionalago bat, hau da, informazio asko falta dela. Hau entsegu baten fase bat da eta gure gorputzekin proba egiten ari gara. Eta ados, zientzian askotan hori egin behar da, baina esan egin behar digute hori egiten ari garela. Hasieratik horrela planteatu baligute, nik ere agian aurrera egingo nukeen, ez dudalako txertoekiko beldur handirik. Baina ez nazatela engainatu. Eta uste dut inoiz ez dela argi esan zer ari garen egiten eta zein emaitza izaten ari diren".

Txerto hauek hain berriak izanik, denborarekin doaz hainbat duda argitzen, beraz, lehenago hartu dutenek bere onurari buruzko berme gutxiagorekin hartu behar izan dute, mediku honek azaldu duenez: "Zorionez, denborarekin ikusi da txertoen eraginkortasuna handia dela, baina garai hartan ez genekien. Eta ez dakigun beste gauza garrantzitsu bat da ea kutsatzeak gutxitzen dituzten, ea eragiten ote duten txertatutako pertso-

na bat besteak gutxiago kutsatzen ditue-na izatea, hau da, ea talde immunitatea sortzeko gai diren. Badirelako aurkakoa eragiten duten txertoak: txertoa hartzen dutenak kutsakorrago bihurtzen ditue-na txertatu gabeak baino. Beraz, argumentu hori, zugatik ez bada besteen alde egiten duzula... herren geratzen zitzaidan, ez nekielako hala izango zen ere".

Ondorio kaltegarriekiko beldurra ere beste motibo bat izan da bere erabakian: "Txerto hauena oso mekanismo berria da, itxuraz segurua dirudi baina ez dakigu. Txerto eta botika askorekin gertatu da ondoren atzera botatzea eta hori da zientziak aurrera egin dezan modua. Baina mekanismoa zenbat eta berriagoa izan, normalagoa da zuhurtziaz jokatzeko. Informazioa nahi den moduan ematen da, badira guztiz ongi azaldu ez diren ondorioak, atzean interes ekonomiko handiak daude... hori guztia tarteko dela, oso zaila egiten zait nire buruari hartzen uztea".

Medikuaren arabera, erabaki bat hartzeko beretzat gakoa da onurak eta arriskuak baloratzea: "Adibidez, nire gurasoei txertoa hartzeko aholkatu nien. Arrisku handiagoko adinean daude, urte gutxiago dituzte aurretik txertoek epe luzera izan ditzaketan ondorio kaltega-

riak pairatzeko, eta birusa harrapatuko balute ez da gutxiestekoa bilakaera txarra izateko aukera. Nire kasuan, gaztea izaki, arrisku faktorerik gabe... uste dut koronabirusa konplikazioekin izateko dudan posibilitatea oso txikia dela eta aldiz, bizi luzea dudala aurretik".

Erabaki bata zein bestea hartu, norberari etorriko zaizkio balizko ondorioak. Zentzu horretan, mediku honek azaldu du samurrago zaiola jarrera pasibo bat hartu izana, eta ez aktiboa: "Txertoa hartzea erabaki aktibo bat da, eta aldiz, koronabirusa etortzea eta horren ondorioz gertatu daitekeena, zoriaren esku gehiago dago. Ezberdina iruditzen zait potentzialki mina ekarri ahal didan zerbait nire gorputzean sartzea erabakitzea, eta bestalde, kaltea nigana iristea. Izaikien arteko interakzioaren eta bizitzaren parte denean kalte hori, niretzako akzidentalagoa da. Gertatzen den horretan nire parte-hartzea zerbait pasiboa da, ez naiz ni aktiboki parte hartzen ari. Birusaz kutsatzen banaiz eta horregatik epe luzeko konplikazioak baldin baditut, bada gertatu da eta ea zer gertatzen den etorkizunean. Baina nire erabakiz zerbait hartzeak eta ondoren zain egon eta konfiantza izan beharrak gehiago erne-gatzen nau".



"INSOLIDARIO ALAENAKI!"

Txertoaren aldeko argudio eta kanpainetan, "nire txertoak zu babesten zaitu" izan da mezu nagusi, elkartasuna jarri da ardatzean. Xantaia emozional eraginkorra dela azaldu du: "Itxialdi garaian herritar asko balkoiko polizia bihurtu ziren eta txertoarekin berdin gertatzen da, moralismo hutsa da. Benetan zein neurritan jartzen du jendeak txertoa besteengatik, eta zein neurritan da solidaritatearen kontu hori jendea jokoan sartzeko erabili duten modua? Eta insolidariorat jotzen zaituztenean min ematen du eta ez txertatzeko zure erabakian salduta geratzen zara, niri ere dilema moral handiak sortzen dizkit. Izan ere, zure burua arriskuan jartzea errazago onartu dezakezu, baina besteak arriskuan jartzen ari zaitetzkeela pentsatzeak kolokan jartzen zaitu".

Txertoa hartu ez dutenak insolidariorat seinalatzen dituztenen eroismoa trapuzkoa dela salatu du: "Gehienetan obediencia hartzen da txertoa, ongi dagoela esaten dutelako, mundu guztiak egiten duelako, eta kito. Ez dut uste COVID-19az gaixotzeko beldurra benetan hainbeste eragiten ari denik txertoa hartzeko erabakian. Beste bide batetik doa kontua".

Berez aukerakoa da hartzea edo ez hartzea, baina errealitatean erabakia ez dela "hain libreki" hartzen azaldu du: "Ez digute erakusten zer gertatzen den hautu bakoitzarekin eta ez dituzte bi hautuak balio berekotzat aurkezten. Bat erabat zigortuta dago eta bestea sarituta eta da-

kartzan arriskuak eta hizki txikiak gutxietsita. Xantaia modu bat da, ez zaitut behartzen baina hemen geratuko zara COVID-pasaportetik gabe. Baina argumentu tranpatia da, zeren eta txertoa bidaiatze hutsagatik eta mundua izorratzen duten hegazkinak hartzeagatik onartu duenak salatuko zaitu insolidario moduan. Eztabaida asko xinpletzen da, txintxoak eta gaiztoak kategorietara murrizten da, eta zu noren alde zauden, hori da erabaki beharrekoa. Eta hobe duzu txintxoan alde egon, bestela denak aurka izango dituzu-eta. Mundu guztiak kritikatzeko dituzte txertoen kontrakoak. Gehien-goaren korronea jarraitzea da joera orokorra".

Formazio egoki bat izan gabe horrelako erabaki bat baldintza txukunetan hartzea oso zaila dela uste du: "Ni osasunean formatuta egonda, eta gaitasuna izanik informazio batzuetara iristeko, parean ez datozen gauza asko ikusten ditut eta duda horiek ez dute lekurik. Hori da arazoa: kontua ez da jendearen artean dagoen debatea ez denik hedabideetara iristen, baizik, debaterik ere ez dagoela jendearen artean. Zergatik ez dago debaterik? Ahobatekotasuna dagoelako, edo gauza batzuk guztiaren gainera daudelako eta beraz ukitu ere egin ezin direlako? Hau da, zientzia beste gauza batzuen zerbitzura ote dago?".

TXERTOAK DA BIDE BAKARRA?

Herritarrak ulertzen du pandemia batean egotearen kontzientziak eta berau

gainditzen lagundu nahiak asko eragiten duela txertoa hartzeko erabakian. Ba ote dago txertoa ez den beste irtenbiderik? Hauxe esan digu medikuak: "Ez dakigu askorik. Teoriak dira. Berez, birus bati interesatzen zaio maizter duen gorputz hori ez hiltzea. Normalena da modu naturalean eta denborarekin talde immunitatea sortzea, baina hori ere birusa zenbat mutatzen denaren arabera da. Adibidez, gripearekin ez du hainbeste balio mekanismo horrek. Eta bai, segur aski modu naturalean hilkortasuna jaisuten joango zen eta birusarekin elkarbitzuten joango ginen. Baina noski, horrek bidean sortzen dituen kalteak agian ez dira onartzeko modukoak edo ez dira onartu nahi...".

Egoera honetan, "txertoa izan daiteke soluzioa" adierazi du, zera gehituz: "Bilatzen dugun irtenbidearen arabera ere bada. Helburua birusa azkar akabatzea bada, segur aski txertoa izango da aukerarik onena. Baina hori, askoz handiagoa den arazo hau modu mugatu batera enfokatzeko modua ere bada. Nire ustez, arazo horri heldu behar zaio ekologismotik, bizitzeko modutik, bidaiatzeko moduetatik, ingurunearekin bizitzeko dugun modutik, eta heriotza onartzeko dugun modutik... Dilema pila bat daude jokoan eta segur aski kapitalismoak ezin ditu aldaketa horiek onartu eta beraz, berarentzako bide bakarra birus hau momentuan etetea da, eta hurrengoa etorri arte itzarotea. Badirudi hori dela datorkigun etorkizuna".



Txertoak txerto, pandemiarekin zer gertatuko den oraindik ez dakigula azaldu du: "Aukera bat da koronabirusak egoten jarraitzea eta jende gehienak –izan txertoarekin, izan koronabirusaz kutsatu ostean– immunitate nahikoa lortzea ez konplikazio handiegirik izateko... baina ez dakigu, ez dakigu txertoek sortzen duten immunitatearekin zer gertatuko den aurrera begira. Adibidez, badira gripearenaren moduko txertoak, ezin dutenak talde immunitaterik lortu: batetik, ez dutelako kutsatzea gutxitzen, bestetik, sortzen duten immunitatea aldi baterako soilik delako eta hirugarrenik, birusa azkar mutatzeko delako. Beraz, horrelakoetan ez da talde immunitatea bilatzen, eta horren ordez talde zaurgarriena babestearen aldeko hautua egiten da. Txerto honekin ez dakigu zer gertatuko den, nolako immunitatea sortzen duen, birusak zer portaera izango duen... ez dakigu horren denaren aurrean zer estrategia hartuko diren".

"USTE DUT EZ DIRELA DETEKTATZEN TXERTOEN ONDORIO KALTEGARRI GUZTIAK"

Txertoak jarri ostean ondorio kaltegarriak erregistratzeko zein metodo jarraitzen den galdetu diogu, farmakobilantzia deitzen den horretaz: "Teorian, medikuok ondorio kaltegarria notifikatu behar dugu. Baina egia erria, prozedura nahiko konplexua da, eta gaixo bakoitzarentzako oso denbora gutxi dugu. Kasu askotan, gainera, ez daukazu argi ea ondorio kaltegarri bat den edo ez, hau da, ea txertoarekin loturarik duen edo kasualitatez denboran bateratsu tokatu den. Beraz, dudaren aurrean, pasatzen uzten duzu askotan. Zaila da sintoma bat ondorio kaltegarri moduan markatzea, uste dut oso seguru egon behar duzula hori egiteko. Eta horri gehitu behar zaio jende asko ondorio kaltegarriak ez dizkiola medikuari jakinarazten.

Beraz, uste dut ez direla detektatzen ari dauden ondorio kaltegarri guztiak. Hori da nire pertzepzioa, nik ikusi dudana. Eta pertsonalki, aitortzen dut dudaren denbora gutxiarekin eta prozedura betetzea kostatzen zaidanarekin, oso argi ikusten dudanean soilik egiten dudala parafernalia hori guztia. Denbora falta da lehen arretan dagoen arazorik handiena".

Zein kasu izan daitezke txertoa hartzea lau bider pentsatu beharrekoak?

Marisa García Alonso Espainiako farmazialaria da, analisi klinikoe-tan berezitua. Hainbat ospitaletan lan egin izan du eta farmaziaz gain, Klinikari Aplikatutako Anali-siak Ikertzeko Laborategia dauka. Núria Coll kazetariak elkarrizketatu du Youtubeko *Soycomoco* kanalean eta hemen jaso ditugu elkarrizketa horretan txertoa hartzea bi bider pentsatzeko gomendatu dituen faktoreak. Zera adierazi du bere ofiziotik gaian nola kokatzen den azaltzeko: "Ez naiz txertoen aurkakoa, baina medikamentuak dira eta beraz, zuhurtziaz erabili behar dira, beharrezko jarraibideekin, ahalik min eta kalte gutxien sortzeko. Ni analista naiz, beraz, nire lana da norbanakoa baloratzea edo zein tratamendu jarri aurretik, erabaki ahal izateko zergatik eman medikamentu bat eta ez bestea. Guztioi ez digu gauza berak balio, eta denoi ez digute eragin bera egiten ezta elikagaiek ere".

Txertoaren aukeraren aurrean, immunitate sistema indartzeko proposamenetara jo ohi du. Elkarrizketan zehar azaldu du immunitate sistemako zein faktore ahul izateak ekarri dituen COVID-19 larri jasateko arriskuak: gaixotasun gehiago harrapatzeko joera dutenak –obesoak direnak, diabetikoak, hipertentsoak...–, hesteetako desorekak izatea, mukosen erantzun egokia ez izatea, NK (*Natural Killers*) zelulak baxu izateak, D bitamina falta... Elkarrizketan azaldu du baita ere nola indartu immunitatea besteak beste COVID-19aren aurrean: "Gure osasun profesionalengandik jaso beharko genukeen diskurtsoa izan beharko litzateke gure immunitatea zaintzea elikadura, ariketa, deskantsuaren bidez eta estresa zainduta, eta ez hainbeste 'txertatu zaitez, txertatu zaitez, txertatu zaitez'".

Sarritan azpimarratu du norberaren erabakia dela, eta inongo kasutan ez lukeela behartuko pertsona bat txertoa hartzea. Eta bereziki aipatu ditu txertoaren ondorio kaltegarriari loturiko faktore hauek:

ADINA

"Zentzu handia du arrisku handiko pertsonen txertoa jartzea. Hauek ere jasan dituzte txertoen ondorioak, baina egia da arrisku maila handiagoa zutela. Gizarte

talde horretan birusaren hilkortasuna oso deigarria izan da. 70-75 urtez gorakoez ari naiz eta pertsona bakoitzaren arabera ere bada. (...) Baina hortik behera, 50 urtez behera edo baita 60 urtez behera ere, kasu bakoitza baloratu behar da txertoa hartu aurretik. Eta noski, umeena ez dut pentsatu ere egiten".

TRONBOAK IZATEKO FAKTOREAK

Elkarrizketan zehar aipatu du S proteina eskas izatea dela tronboak jasateko faktoreetako bat: "S proteina koagulazioaren inhibidore moduko bat da: honek 5 faktoreari agintzen dio koagulatzeari uzteko, dagoeneko aski koagulatu delako. S proteina eskas denean, koagulazioak jarraitu egiten du eta orduan sortzen dira tronboak. Oso ohikoa da herriarren artean. Eta genetikoa da, beraz, oso kontuz ibili behar da, elikadura zaindu... eta txertoari begira, zuhurtzia erabatekoa izan".

LEHENDIK COVID-19A PASATA DUTENAK

"Koronabirusa pasa duena txertatzeak ez du ez hanka ez bururik. Immunologiaz gutxieneko oinarria duenak badaki hori". Urtebetean egin dituen analisi klinikoetatik ondorioztatu du COVID-19a pasatu duten gorpuzteak ez dutela memoria immunitarioa galtzen eta beraz, gorpuzte hori berriz kutsatzen bada, gorpuzte aurre egiteko gai dela: "Birusa pasatu duen pertsonak, zentzu horretan, zortea dauka, ez du txertoan pentsatu beharrik. Dagoeneko ikusten ari gara Pfizer-Moderna txertoen modukoetan antigorpuzteak erortzen hasten direla bi hilabetera eta hori ez da gertatzen immunitate naturalarekin". "Nik txertoa hartu aurretik beti antigorpuzte proba bat egingo nuke, garbi izateko ez dudala birusarekin kontakturik izan aurretik".

UGALDU NAHI DUTENAK

"Uste dut ugalkortasun garaian dagoen pertsona batek eta seme-alabak ekarri nahi baditu, agian hobe lukeela immunitatea zaintzea txertoa jartzea baino, ondoren haurdun ez geratzea ere angustia handia sortzen baitu eta agian txertoa hartzeko beharrik ez zeukan, 30 urterekin COVID-19az zerbait gertatzeko dagoen probabilitatea oso eskasa baita". ●

“ ”

Mendian korrika egiteak lehia sustatu duela esatea ez zait justua iruditzen

Iker Karrera

Mendizaletasunak bizi dituen aldaketarik handienak batetik teknologiaren eta bestetik korrikalarien eskutik heldu direla aipatu ziguten maiatzeko *Larrun* aldizkarian elkarrizketatu genituen zenbait lagunek. Iker Karrera (Amezketeta, 1974) eta Jone Urkizu (Azkoitia, 1979) mendi korrikalarien testigantzak jaso ditugu orain, kirol horren garapenez eta mendiari lotutako filosofiaz besteak beste.

 JON TORNER ZABALA

Amezketako baserri batean jaioa naiz, mendiz inguratua”, kontatu digu Karrera. “Behiak goiko larreetara eramaten genituen; korrika joaten nintzen animaliak ongi ote zeuden ikustera, eta beherakoan berdin. Niretzat naturala izan da mendian korrika aritzea”. *Iker Karrera. Bidea ipar elkarrizketa liburu* (Unai Ugartemendia. Desnivel, 2020) aitzakia hartuta bildu gara berarekin. Zuzenean heldu diogu gaiari, eta lehen erantzunetik markatu digu bidea puntako konpetizioa albo batera utzia duen kirolariak.

Mendiari lotutako baloreak galtzen ari al dira? Korrikalariak lehia ekarri dutela dio zenbaitek...

Mendiak ez dauzka baloreak, espazio bat da. Baloreak pertsonok dauzkagu. Mendiari, mendizaletasunari, ematen dizkiogun baloreak, idealizatutako irudi erromantiko hori... gezur handia da. Mendian, pertsonak bertan dabiltzane-

tik lehia egon da, garai guztietan. Himalaiako konkistak estatu-gaiak ziren, banderak jartzen zituzten, gerra eremuak ziren nolabait. Alpeetan pareta batzuk eskalatu edo bide berriak irekitzeko ezkutuan aritzen ziren, xextran hasten ziren lehena nor sartuko... Ez zait justua iruditzen esatea mendian korrika egiteak lehia sustatu duela. Gizakia gizaki denetik, iritsi den leku guztietara lehia eraman du. Mendiak ezer badu balore naturalak dira. Gainerakoak guk errekonozitzen dizkiogu. Garaian garaiko kultura, behar, baliabide eta abarren arabera balore batzuek indar handiagoa hartuko dute, modan egongo dira. Eta kito.

Eta zure ustez, zein dira mendian korrika egitea “moda” bihurtu duten faktoreak?

Batetik, esango nuke Euskal Herrian dagoen kirolzaletasuna neurri batean lotuta dagoela bizi kalitate on batekin:

denbora libre gehiago dugu, osasunari arreta handiagoa ematen diogu... Bestetik, mendia oso eskura daukagun bezala hiria ere gainean dugu, eta agian da handik ihes egiteko modua. Astuna da korrika asfaltoan egitea, errepide bazterrean edo poligono batean. Mendia atseginagoa da, estimulu positibo gehiago ematen dizkizu. Eta uste dut badugula kultura bat non ongi balortua dagoen kirola egitea. Izango balitz estimu gutxikoa edo kulturalki gaizki ikusia dela, ziurrenik ez luke hainbeste jende erakarriko.

Mendi korrikalaria, mendizalea da ala gehiago atleta?

Zer da mendi korrikalaria izatea? Pertsona bati gustatu ahal zaio mendian korrika egitea. Beste gauza bat da pertsona hori mendiko lasterketetan lehiatzea, eta beste bat ogibide bihurtzea. Norbaitek mendian korrika egiten duelako mendi korrikalaria da? Ez dut

uste. Pentsatu nahi dut, bere osasunerako, ez zaiola hori bakarrik egitea gus-tatuko. Gaixotasun bat dauka bestela; eguneko 24 orduetan mendian korrika aritzea besterik ez badu buruan...

Ogibide bihurtzea ez da samurra.

Oso kirolari gutxi bizi da hortik. Nik kontratua nuen Salomonekin, eta profesional batek eskaintzen dion denbora eta esfortzu bera eskaintzen nizkion, baina ez nintzen profesionala. Profesionala izatea da egiten duzun horrekin ekonomia bat sortzea, jarduera hori monetizatzea. Eta hor, txorakeria gutxi. Ukitu erromantikoa, "nik hau gustuko dudalako egiten dut"... Ez, ekonomia bat sortu behar duzu, beste edozein ofiziotan bezala.

Zuk sentitu al duzu ekonomia sortzearen presioa?

Ez, lanpostua mantendu nuelako [Tolomendi landa garapen elkarteko geren-

tea da]. Neukan denbora libre ia dena mendi lasterketei eskaini diet, beste gauza batzuk sakrifikatuz, baina nire helburua ez da sekula izan jarduera hori monetizatzea. Inork buruan baldin badu profesionala izatea, entrenatzen adina denbora pasa beharko du ordenagailuan, ekonomia bat sortzeko ez baita nahikoa korrika egitea. Sare sozialetan aritu behar zara, irudi edo marka bat sortu, babesleak erakarri...

Sare sozialak eta mendi lasterketak elkar helduta doazela esan ohi duzu.

Kirol honek testuinguru paregabea du, eta zenbait momentutan izan dezake ere kontakizun bat, ukitu epikoa. Hori horrela, lortu du marka batzuk erakartzea, zeintzuk internet baliatzen duten lasterketak promozionatu eta euren produktuak saltzeko. Sare sozialak tresna ona dira hau bezalako kirol minoritario batentzat, komunika-

bide masiboak ez direlako iristen, edo komunikabide masiboetara ez delako iristen. Eta hor korrikalariok paper bat jokatzen dugu, behar dugulako babeslearen produktua promozionatu. Uler-tzekoa da, baina niretzat ez zenez ogibidea, ez nuen ezer saltzeko beharrik izan, baizik eta gustuko dudalako ari nintzela korrika, desoreka sor daiteke, markek saldu egin behar dutelako. Egunero-egunero presentzia izateko edukiak sortu beharra, zerbait kontatu, argazkiak igo... deseroso sentiarazten ninduen.

Ekonomia bat sortzeak duen garrantzia aintzat hartuta, norantz egin dezakete mendi lasterketek?

Pentsatzekoa da garapen bat izango duela materialari edo prestakuntzari dagokionez. Jendeak distantzia zehatzetan espezializatzen joko du, ahalik eta emaitzarik onena lortzeko. Geroz eta korrikalari gehiago egon, are gehia-



IKER KAREBAK UTZIA

Ehunmilak, Zegama-Aizkorri...

“Beti iruditu izan zait Mon Blanc-eko ultra-trailaren arrastoa jarraitzeko nahia izan duela Ehunmilak-ek, alegia, distantzia bera izatearena. Hori Euskal Herrian oso zaila da”, dio Karrerak *Bidea ipar* liburuko pasarte batean. “Esango nuke lasterketa askoren arazoa dela, marka edo neurri zehatz bat bilatu nahi izatea eta, kasu honetan, ehunmilak markak agintzen du. Ibilbideak ez du logika handirik edo, beste modu batera esanda, uste dut ez duela beste lasterketa askok duten nortasun propiorik. Izateko duen justifikazio bakarra, ehun milak distantzia betetzea da”.

Aldiz, Jone Urkizuri lasterketarik gogokoena zein duen galdetu eta Ehunmilak aipatu digu lehendabizi: “Antzematen da mimo handiz antolatua dela. Korrikalariak zaintzen dituzte. Ez da enpresa batek sortua eta nabari da. Ez dut aditzera eman nahi horiek txarrak direnik. Baina lasterketa handiak, korrikalari mordoa biltzen duten horiek, inbertsonalak iruditzen zaizkit hein batean. Mont Blanc-ekoa esaterako, badirudi Meka dela, eta bizitzan behin egin beharrekoa da, bai, baina nire ustez ez dago Ehunmilak-ekin alderatzerik. Zegama-Aizkorri ere asko aldatu da, oso mediatikoa da gaur egun. Lasterketa ederra da, mundu osoko korrikalariekin lehiatzen duzu, ikusle piloak biltzen du... Baina ni jada ez nau hainbeste erakartzen”.



go igoko da maila. Baina jende gehiago aritzeko dimentsio ekonomikoak handiagoa izan beharko luke. Gaur eguneko pastelak ematen badu hamar lagunek hortik jateko, hamar lagun izango dira lehiatzen. Eta emango balu 50 pertsonak jateko, 50 egongo lirarteke. Pastela handitzen ez den bitartean... Zentzu horretan, denak profesional bihurtzea izan behar al da helburua? Zalantzak ditut nik. Fondo gehiago beharko lirarteke; momentu honetan zaila ikusten dut.

“ ”

***Gazteek naturalki
egiten dituztenak niri
gehiago kostatzen
zitzaidan.
Entrenatzera irten
aurretik ispiluan
begiratu, sakelekoa
hartu eta argazki bat
ateratzea ez zitzaidan
burutik pasatzen***

Pastela ez da handituko?

Zalantzak ditut. Gurean adibidez karrerara asko antolatzen da, udalek-eta esku hartzen dute, diru publikoa sar-

tzen da, baina denbora batera ez badira enpresak sartzen, jarduera horrek ez badu dirurik generatzen, diru publikoa beste nonbaitera joango da. Eta enpresak sartuko dira ekonomia bat sortzeko aukera baldin badago.

2011n, Chamonixeko alkateak adierazpen izugarri argigarriak egin zituen UTMB bezperan, munduko lasterketa nagusia eta korrikalariak geure lekuan jarri gintuztenak. Esan zuen UTMBren papera dela Mont Blanc inguruan 1.000 eta 3.000 metro artean dauden parajeei etekin ekonomikoa ateratzeko produktu turistikoa bat sortzea. Gaur egun ia 10.000 korrikalari biltzen da UTMBn, produktu turistikoa sustatzeko pankarta edo letrero komertzial bihurtuta. Zegama-Aizkorri maratoiak ere herria, Goierri, mapan kokatu ditu. Helburua bera da: ditugun baliabideekin nola sor dezakegu ekonomia bat?

Lasterketek argi daukate euren izateko zioak zein behar duen?

Ezetz esango nuke. Askotan karrerak antolatu dira momentu batean egon delako pertsona edo talde bat esan duena: “Hemen ibilbide bat dago, zergatik ez zerbait egin?”, areagoko helbururik gabe. Batzuek eboluzionatu dute, euren espazioa topatu eta egutegian lekua egin. Agian dira 2. edo 3. mailakoak, baina liga horretan beren espazioa egin dute. Arazoak sortzen dira 3. mailako lasterketa batek Txapeldunen Ligan jokatu nahi duenean. Ibilbideek logika bat izan behar dute, agian historia bat, estetika bat. ●

“ ”

Hemen, oso sasoiko sentitzen ez bada jendea ez da karreretan irteten; Frantzian desberdina da

Jone Urkizu

2006an egin zuen debuta Jone Urkizuk, Zegama-Aizkorri maratoian. Hamabost urte beraz, mendi lasterketetan hasi zela. Apuko Extrem, Els Bastions, Costa Blanca... garaipen politak lortua da azkoitiarra, podiumera igozteaz gain Montsec (argazkian), Ehunmilak edota Hiru Handietan. Bere hitzak dira ondorengoak:

“Mendian asko ibilitakoa naiz. Hiru Handiak-eta, oinez hasieran, baina sasoia hartzen nindoan heinean korrika txikian egiten nituen tarte batzuk. Eta handik lehen lasterketa egitera: Zegama-Aizkorri, 2006an. Askok sufritu nuen, konturatu nintzen mendian korrika egin nahi banuen horretan entrenatu beharra nuela. Entrenatzeko moduak nabarmen aldatu dira azken urteetan. Mendia, mendia eta mendia, lehen ez zegoen besterik.

Korrikalarien maila asko hobetu da urteotan. Garai batean parte hartzaileen artean mendian asko ibilitako jendea zegoen. Korrika egiteko nahikoa prestakuntzarik ez zuen ordea. Mendian bizi izandakoek –beroa, hotza, egarria...– egoera batzuk hobe kudeatzen lagun zaitzakete, baina ezinbestekoa da korrika modu egokian egitea. Kirol berria izanik badu alde ona: edonork har dezake parte lasterketetan, puntako korrikalariak helmugan sei ordu aterako dizkizun arren, nahiz eta, Euskal Herrian, jendea ez den karreretan irteten oso sasoiko sentitzen ez baldin bada. Frantzian bestelakoa da, bata-

lau orduan bukatuko du eta besteak zortzitan. Herrikoiagoak dira neurri batean.

Egitura edo baliabide aldetik bada zer findua. Saltsa handia dago: mendiko federazioak direla, atletismokoak, babesleek ere txapelketak antolatzen dituzte (Salomon-en ‘Golden trail series’ adibidez)... Ez baita kirol profesionala, horrek dakartzan ondorioekin. Atleta sentitzen ote naizen? Ez. Kulum Sport da nire taldea. Tira, gehiago da lagun koadrila bat. Babesleak agian beherapenen bat egingo digu bere markako arropa erosi nahi dugunean, baina hortik harago ezer gutxi.

Nik ez daukat oso garbi jende gazte asko dabilenik mendian korrika, ez behintzat duela urte batzuk baino askoz gehiago. Egia da badituela erakargarri egiteko osagaiak, ingurune ederra eta lehia puntu hori, eta sare sozialen kontua ere badago. Mendian korrika egitea saltzen denean ez dakit zer balitz bezala, eta erronka batzuk lortzea arrakasta izugarria litzatekeela,

jende bat erakartzen du. Ni ez naiz sare sozialetan asko ibiltzen. Beharrik ere ez dut inoiz sentitu; babeslea banu desberdina izango litzateke ziurrenik, haiek produktua saldu nahi dituztelako”.

EMAKUME TALDERIK EZ

“Entrenatzen-eta neska talde gutxi ikusten da. Normalean mutilen taldeetara batzen gara asteen zehar korrika egitera atera nahi badugu. Faltan sumatzen dut, neska taldeak baleude errazagoa litzatekeelako emakumezkoak erakartzea. Erosoago sentituko ginatke.

Lasterketetan ikusgaitasun txikia dugu gainera. Gehienetan mutilak eta neskak denok batera irteten gara, eta 500 lagun artean zaila da gu ikustea. Horrez gain, lehena heltzen den mutiletik lehenengo neskara tarte egoten da, karrera luzeetan agian hiru ordukoa, eta ematen du mutilak direla makina batzuk eta gu aldiz... Batzuetan pentsatzen dut ederki dagoela denok batera irtetea, baina beste batzuetan zalantza sortzen zait. Gogoan dut duela urte batzuk Bera inguruan antolatu zutela emakumeentzako lasterketa bat. Nahiz eta jende askok hartu zuen parte, ez zen berriro egin. Esaten dute emakumeek kirolik ez dutela egiten, baina antolatzen dituzuten horrelakoak, edo Lilatoia, eta neska piloak ematen du izena. Amorrua ematen dit esatea emakumeok ez dugula konpetitzen. Barkatu, kirola egiten ari naiz. Zegama-Aizkorri lehenengoz egin nuen Angela Mudge britainiarrak irabazi zuen, bost orduetik beherako marka egin da. Ba jende batek esan zuen gizonezkoa ematen zuela eta gisakoak. Kristorena egin eta gainera hura deskalifikatzen... Hasiera haiek ez ziren errazak izan.

Euskal Herrian erreferente handiak ditugu. Maite Maiorak du Zegama-Aizkorriko errekorra gaur egun [04:34:27]. Hark egin duena ez du beste inork lortu, ezta mutil batek ere. Profesional baten pareko palmaresa du. Oihana Azkorbebeitia, Uxue Fraile, Nerea Amilibia, Rosa Lasagabaster... Izen ezagunak dira, bai. Bi irakurketa izan ditzake horrek, ordea: oso mendi korrikalari onak atera direla, edo ez dagoela erreleborik. Azken 15 urtean antzekoak gabiltza”. ●



JONE URKIZUK UTZIA

“Euskaraz hitz egiteko, erabaki politiko bat hartu behar da”

Imanol Epelde

Imanol Epelde Zarauzko Lizardi Institutuko irakaslea da eta sare sozialetan buruak astintzen ditu “autokritika umoretsua” lelopean.

 ANDER BALANZATEGI

HORDAGO
EL SALTU

Elkarrizketa hau *Hordagok* argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Imanol Epelde (Zarautz, 1977) irakaslea, idazlea eta kultura sortzailea da. Etxepare Rap proiektua sortu zuen eta, horren bitartez, euskal literaturako testuak musika garaikidearekin lotuz, modu berritzaile batean irakastea lortu du. 27 Zapata blogean, “autokritika umoretsua” lelopean aritzen da, eta buruak astintzen ditu Youtubera igotzen dituen bideoblogekin, kritika politiko eta sozialaren eremukoak. Euskal kultura zabaltzeaz gain, horren kontsumoa ere sustatu du, teknologia berriek eskaini dizkieten baliabideekin.

Nondik dator kizua euskararekiko interesa?

Ni euskaraz naiz, eta euskara ere banaiz. Esango nuke hizkuntza dela nire nortasunaren marka gorena. Batez ere, hizkuntza egoera diglosiko honetan, non

beste bi superhizkuntza ditugun alboan, frantsesa eta gaztelania, eta hirugarren bat ere bai, ingelesa, are handiagoa dena. Bizinahia aldarrikatzeko oihu bat da, eta nor izateko borroka bat. Komunitate eta familia baten parte sentitzen naiz, euskararen jendearen parte. Horrek egiten nau ni, eta egiten nau gu.

Sentimendu horrek bultzatu zaitu irakaskuntzara?

Nik ikastolan ikasi nuen eta garai hartan bertso eskola bat zegoen. Jende aurrean egoten eta jarduten ikasi nuen, baita hizkuntzarekin jolasten ere, besteak beste. Jende aurrean egotetik irakaskuntzarako pausoa errazago bizi izan dut. Egunerokoan pertsonen aurrean bertsoetan egiten, klaseak ematen eta gazteekin lan egiten jardutea... energia txute bat da. Egia da batzuetan nekagarria dela, baina

plazer bat da beti eguneratuta egotea eta ikasleekin egotea.

Gaztetatik hasi zinen bertsoaren, eta Motxian Bertso Eskolaren sortzaileetako bat zara. Ezinbestekoa da bertsoaren euskal kultura bultzatzeko?

Bertsoaren da gaur egun euskal kulturak duen adierazpenik potenteena. Ez bertsoaren bera oso zuzena eta hunkigarria delako, ez horregatik bakarrik, baizik eta mundu hau oso antolatutako dagoelako. Bertso eskolak ezinbestekoak dira, eta hezkuntzan eragina izan behar dute. Gaur egun, antzerkian, musikan eta literaturan ez dugu inongo kulturaren inbidiarik izan behar. Gainera, bertsoaren pare bat abantaila handi ditu: oso ondo antolatuta dago, eta beste kulturetan ez dago horrelakorik.

“

Euskal literatura irakasterakoan jabetu nintzen euskarak, bere historia eta gutxitasuna kontuan izanda, armairu zaharraren usaina duela”

Gipuzkoako txapelketetan ibilia zara. Maila demostratu duzu.

Orain ez [barre]. Jendaurreko jarduna gustatzen zait, baina inprobisatzea oso gogorra da. Norberak gai bat jarri eta kantatzea, edo besteak esandakoari erantzutea... niri asko kostatzen zait. Entrenamendu eta diziplina handia eskatzen du. Txapelketetan aritu nintzen, eta norgehiagoka handia zegoen; nik ez nuen bertsolaritza horrela bizi nahi. Garai hartan, nekatuta edo haserre, bertsolaritzari uko egitera iritsi nintzen, eta horrek beste sormen bide batzuk urratzera eraman ninduen.

Nondik etorri zitzaizun Etxepare Rap egiteko ideia eta motibazioa?

Ni ikasleekin aritzen nintzen, haiei euskal literaturako lanak erakusten. Eta jabetu nintzen euskarak, bere historia eta gutxitasuna kontuan izanda, armairu zaharraren usaina duela, gainontzeko hizkuntzek ez dutena. Eta pentsatu nuen: euskarari distira hori emateko, gure literatura irakats dezaket, baina saia nadin hori modu polit batean egiten. Testuak irakurtzen genituen, eta pentsatu nuen testu haiek kantura eraman nitzakeela. Literaturari oinarri garraikide bat jarri, rapa kasu, eta ea funtzionatzen duen. Etxepareren testuekin hasi nintzen, eta horrela jarraitu nuen, hogeitatu bat kantu sortu arte.

Lingua Vasconum Primitiae da proiektu horretako abestirik ezagunena. Etxeparek noizbait imajinatuko al zuen euskarazko lehen liburua rapeatuko zutenik?

Pentsatzen dut baietz. 1545. urtean idatzitakoa izateko oso hitzaurre modernoa zuen, gaur egunera-ko balio duena. Gero, eduki al-

detik ere, oso freskoa eta berritzailea zen. Oraindik ere esperoko ditu bertsio berriak, trap erakoak edo beste edozein estilotakoak.

Euskal kulturaren errepasso bat egiten duzu, zenbait mendetako abestiekin. Zein iruditu zaizu horietatik bereziena?

Lehenengo egin nuen Etxepare Rap hartatik Oihenarten letrak azpimarratuko nituzke. Hasteko, hamar kanta egin nintzen, eta, handik urte batzuetara, beste hamar egitea erabaki nuen. Bigarren haietan, emakumeen ahotsak gehitzen saiatu nintzen, eta hor Bixenta Mogel nabarmenduko nuke, XIX. mende hasieran euskarazko liburu bat atera zuelako. Sarreran hau esaten du: “Askok pentsatuko duzue hau ez dela emakume baten zeregina, josten egon beharko nukeela eta ez liburuak idazten, baina anaia hasi zen latina ikasten, eta nik ere egin nuen”. Gero anaiak baino hobeto ikasiko zuten latina; eta, izan ere, bere lanak fabulen itzulpenak dira. Berak liburu bat egiteko ausardia izan zuten, eta ni oso gustura geratu naiz kantarekin.



Literatura liburuetan ez dira emakumeak sarri agertzen. Euskal kulturaren erreferente femeninoak falta dira?

Ez, badaude. Gaur egun, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Eider Rodríguez... bezalako izenak aurkitzen dira. Ez nuke esango bata bestearen parean daudenik, baina, emakumeei dagokionez, gero eta ahots indartsuagoak entzuten direla uste dut.

Youtubera igotzen dituzun bideoblogetan, euskal kulturaren alorrean argitaratzen diren edukiak ezagutarazten dituzu. Ezkutuan al daude horietako asko?

Ez dugu ideiarik ere. Spotifyra sartzerakoan, erreferentzia kopuru handi bat datorkit burura, baina, horien artean, ez da sekula egiten euskal kulturaren aipamenik. Prentsa hartzen badut, Gipuzkoan gehien irakurtzen den egunkarian ez dago ia euskal kulturarekiko erreferentziarik. ETB2n ere, euskara ez da ia existitzen. Euskararen inguruan sortzen ari dena jasotzeko esfortzurik egiten ez badugu, ez zaigu ezer ere iritsiko. Euskarari erresonantzia kaxa handi bat falta zaio, sortzen diren lanak zabaltzeko balioko lukeen tresna bat. Ikasle eta irakasleekin garbi ikusten da ez dakigula zer liburu, abesti edo antzerki dauden. Gainera, antzerkiari dagokionez, urrezko aro bat bizitzen ari garela uste dut; literaturan sortzen ari diren lanak ere oso ederrak dira, eta musika potentia ateratzen da. Beti nabarmentzen dira batzuk, baina, horien atzean, lan eta sortzaile gehiago ere badaude.

Ezagutuko duzu orain booma jo duen taldea, Chill Mafia. Zer iruditzen zaizu?

Niri zoriontzekoa iruditzen zait horrelako lanak ateratzea. Badirudi ondo pasatzeko egiten dituztela kantak, baina atzetik formazio handiko sortzaileak daude. Bideoklipak oso landuak daude,

ulertzen dituzte garaiaren koordenuak... Hala ere, horrek ez du esan nahi egiten duten guztia txalotuko nukee-nik. Izan ere, feminismoaren ikuspegitik, uste dut irudi batzuk pixka bat garaiz kanpokoak direla. Hala ere, pasada bat da. Euskararen periferiatik sortutako lanak kontuan dituzte, Iparraldean kontuan dute... Elkarrizketa batean esan zuten zalantza dutela zein duten gogokoen, Jon Mirande ala Gabriel Aresti. Barkatu? Horrek esan nahi du irakurri dutela eta formatu direla. Oxala horrelako gehiago sortuko balira. Euskararen eta gaztelaniaren arteko lotura horretan, uste dut konplexu horiek kendu behar ditugula, eta haiek naturaltasunez egiten dute, jende asko erakartzen ari dira. Biba Chill Mafia!



Ikasle eta irakasleekin garbi ikusten da ez dakigula zer liburu, abesti edo antzerki dauden”

Youtubeko kanala aldarrikapen sozial eta politikoak egiteko erabili duzu.

Bai, eta baita Etxepare Rap egin nuen ere. Gure kontzientziak astintzen saiatzen naiz, eta horrela ipini nuen nire blogaren leloa, hain zuzen: “autokritika umoretsua egunerokotasunari”. Geure buruaz barre egiten ere ikasi behar dugu, oso osasuntsua delako. Gure gabezia eta beldurretatik hasi, eta balio dezala horrek gizarte eta mundu hobeto bat lortzeko. Aldatuko nituzkeen gauza asko ikusten ditut, nigandik hasita, eta ezinbestekoa iruditzen zait horiek identifikatzea eta mahai gainean jartzea. Kritika sozial eta politikoak pre-

sente egon behar dute; horrela ulertzen dut nik nire sormena, behintzat.

Kanten edo bideo blogen bidez beste ikasbide mota bat bultzatu duzu. Institutuetako hezkuntza sistemak aldaketa berritzaile horiek izan behar ditu?

Ez. Niri kantatzea gustatzen zait, teknologia berriak, blogak, kamerak... Baina beste askori ez. Garrantzitsuena da irakasleek ikasleei pasioa transmititzea; batzuek modu batera lortuko dugu, eta beste batzuek, berriz, bestera. Bakoi-tzak bere tresnak eta puntu indartsuak ditu, eta ez dago bide bakarra. Denen arteko nahasketa da, eta nik asko daukat ikasteko besteengandik, bai hasiberriak direnengandik, eta baita urte asko daramatzatenengandik ere. Berritzailearena asko aipatzen den etiketa da, eta edozein tokitan jartzen da. Izan ere, teknologiarekin klaseak berritzaile kutsua hartzen du. Baina teknologiak erabilita ere, eskola saioa beti bezain lehor ematen jarrai genezake. Umiltasunetik egiten dut nik nirea, eta, besteentzat baliagarria bada, aurrera.

Nola ikusten duzu gaur egungo gazteria euskararekiko?

Kontzientzia kontua da. Euskaraz hitz egiteko, erabaki politiko bat hartu behar da, apustu bat egin behar da, egoerak erdaraz bizitzera eramaten baitzaitu. Gazte asko ikusten ditut kontzientzia horrekin, eta beste asko, aldiz, batere gabe. Uste dut eskoletan eta hezkuntzan lanketa hori egitea falta dela. Gaur egun eskola publikoan euskaraz irakasten bada, apustu politiko bat egin zelako da.


Bukatzeo, euskal lanen gomendio txiki bat.

Antzerkian, Iparraldeko Fuchs anaiak edo Artedrama Plataforma. Musikan, Chill Mafia. Literaturan, *Kafe tristearen balada*. Eta poesian, Jose Luis Ota-mendi. ●

BABESLETZA:



Tomatea, nobleentzako sagar pozoitsua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Italia, 1541. Pietro Andrea Mattioli mediku eta botanikariak lehenengoz aipatu zuen europar literaturan *Solanum lycopersicum* espezieko landarea ea bere fruitua. Italiara berenjena berri bat iritsi zela zioen, gorria edo urre kolorekoa zena, gatza, piperra eta olio botata jan zitekeena. *Pomo d'oro* (egun, *pomodoro*) edo "urrezko sagarra" esan zioten italiarrek, baina Europako hizkuntza gehienetan landare horri aztekek eman zioten izena hartu zuten oinarri: nahuatl hizkuntzan *tomatl* esaten zioten eta hortik dator tomate hitza.

Lehen aipamen horretan Mattiolik tomatea jangarria zela iradoki arren, luzaroan, Europako toki gehienetan soilik ornamentaziorako landu zuten espeziea, pozoitsua omen zelako. John Gerard botanikari britainiarrek, esaterako, toxikoa zela idatzi zuen 1597an. Eta egia da Europan hainbat pertsona pozoitu zirela tomatea janda, gehienak nobleziako kideak, eta bateren bat ere hil egin zela ondorioz. Baina orduan ez zekiten zergatik, edo nolatan aztekek ez ziren pozoitzen, eta pozoiak zergatik eragiten ziren bereziki aristokratei.

Esaterako, XVII. mendearen amaieran, Napolesen pizzaioloak ordura arteko pizza zuriei tomatea eransten hasi zirenean, kontsumitzaileak ez ziren intoxikatzen, tomatea opil lauaren gainean jartzen zelako, hau da, ez zelako zuzenean plater gainean kontsumitzen. Kontua da garai



LUIS EGIDIO MELLENDEZ

hartan herritar aberatsenek peltrezko platerak eta mahai tresnak erabili ohi zizutela otorduetan. Peltrea hainbat metalen aleazioa da, besteak beste, beruna. Tomatearen azidoen eraginez, platerak eta tresnek beruna askatzen zuten, eta horixe zen jankideak pozoitzen zituena, ez tomatea bera. XVIII. mendea amaitu baino lehen, toxikotasunaren eztabaida argituta, *Encyclopaedia Britannicac* jaso zuen tomatea "egunero kontsumitzeko" produktua zela.

Mende bat geroago, ordea, tomatearen kontsumoa gorantz ari zela, AEBetako inportatzaile batek beste eztabaida

bat jarri zuen mahai gainean. Barazkien gainezko zerga altuak saihesteko asmoz, inportazio agerietan adierazi zuen tomatea fruta zela. Azkenean, zergak ordaindu behar izan zituen, AEBetako Auzitegi Gorenak tomatea barazkia zela epaitu zuelako. Baina egun auziak ez du oraindik erantzun garbirik: hizkera arruntean frutatza jotzen da maiz; biologikoki fruitua da eta, zehazki, botanikan, baia bat da; historikoki baratzeiko produktua da, barazkia, ortuaria; eta legalki ere barazkia edo berdura da leku gehienetan, XIX. mendean epaile estatubatuarrek erabaki bezala. ●

Oihalek esaten digutena

Norwegian, Trondheim Unibertsitateko ikertzaileek zortzi oihalen arrastoak topatu dituzte X. mendeko emakume bikingo baten hilobian: sei artilezkoak dira eta beste biak, lihozkoak. Oso gutxitan aurkitu dira hainbeste zati eta hain anitzak, eta emakumea ziurrenik eliteko kidea zela jakiteaz gain, beste ondorio batzuk atera nahi dituzte adituek: bikiingo jantziak uste baino konplexuagoak -brodatu bat

aurkitu dute- eta koloretsuagoak zirela -pigmentuak ere aztertzen ari dira-; oihalgintza jarduera garrantzitsua zela -itsasontzi bikingo baten oihalak egiteko 2.000 ardiren ilea behar zen, eta familia baten jantziak egiteko, pertsona baten urte osoko lana-. Gainera, oihal horiek bertan eginak edo inportatuak ziren aztertuko dute, eta horrek merkataritza harremani buruzko informazioa ere emango du. ●



NTNU UNIVERSITY MUSEUM

Euskal Herriaren pisua litrotan eta kilogramotan

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Bogako kideek azaldu digute zein den garagardo artisauaren merkatuan marka desberdinek hartu duten azken olatua, “posizionamendu bat lortzeko”: “Garagardo berezien edizioak egitea, garagardoazale amorratuentzako, azken joerako lupuluak erabiliz. Berrikuntzen zirkuitu horretan sartzen da jendea azken garagardoa probatu nahian, ea zein zapore eta usain dituen... goren mailako kalitatean zentratuta. Kultura honetan sartuta dagoen jendearentzat modan egotea da marka denek bilatzen dutena”.

Bogak beste olatu batzuetan igeri egiten duela diote: “Kultura berri honetan oraindik sartu gabe dagoen jendeari zubiak eskaintzen dizkiogu kultura hori ezagutzeko. Publiko orokorrako batetara zuzentzen gara. Gure katalogoan badiugu kultura berri horretan eskatuena diren estiloak, eta nahiko oinarritzko estiloak ere bai, ikasten joateko. Baina horri balio erantsi bat ematen diogu: bertoko ekoizle eta hornitzaileak lehenestea”.

BOTILATXOAREN %80 EUSKAL HERRIKO GAI EZ BETEA

Garagardoa egiteko behar ditugu ura, zereal edo alea, lupulua eta legamia. “Elementu horiekin jolasten dugu zapore batzuk edo beste, usain batzuk edo beste, edo sentsazio batzuk edo beste sortzeko edalearengan”. Sareko ura erabiltzen dute, “Euskal Herrian oso ona delako. Gure lantegia Mungian dugu” esan dute, bertako ura darabilte ula ulertzeraz emanaz.

Zereal edo laboreen artean batez ere garagar malta erabiltzen da eta bigarren maila batean gari malta. Baina beste labore batzuekin ere jolasten dute tarteka (oloa eta abar). “Garagar malta Nafarroan kokatutako Inter Malta enpresa malteatzaileari erosten diogu. Modu horretan, inpaktu ekonomikoa Euskal Herrian geratzen da eta haiek zero kilometroko landetatik hartzen dute garia eta malteatu egiten dute: laborea germinatu, sikatu eta tostatzeko da malteatzea. Horren arabera, xigortasun maila bat edo beste ematen du garagardoa egite-



ko”. Intermaltak Nafarroatik, Arabatik eta Burgostik ekartzen du laborea. Bogak erabiltzen duen maltaren %80 Intermaltari erosten dio: “Artisau garagardotan ohikoa da malta Ingalaterratik ekartzea, horrek halako matiz batzuk ematen dizkiolako kalitatean eta errendimendu hobea ere bai: malta kilo gutxiago behar dituzu garagardo litro bakoitzeko. Baina noski, aztarna ekologikoa handiagoa da. Guk jasangarritasun ikuspegitik ere, bertatik ekartzea lehenesten dugu”.

“Lupuluaren sektorea ez daukagu hain prestatuta”, azaldu dute. Horregatik, Euskal Garagardogileen Elkartearen ari dira lehen sektorea sustatzeko: “Adibidez, Araban Berantevillan lupulu landaketa bat jarri dugu martxan, bariedade ezberdinak sortzeko, izan ere une honetan bariedade oso gutxi dago Arabatik edo Nafarroatik ekarri dezakeguna”. Lupuluaren kasuan %20 soilik ekarri dezakete Euskal Herritik: “Hori da erronka, nekazal munduarekin batera proiektuak lantzea geroz eta gehiago sortu ahal izateko. Baina pisuan, lupuluak ez du hainbeste garrantzaririk: tona bat malta erabiltzen dugu garagardo eginaldi bakoitzeko, eta lupulua 10 kilogramo (IPA estiloko garagardoetan 40 kilogramo)”.

Legamia da azken elementua. Garagardotan bere pisua oso txikia da, eginaldi bakoitzeko 1,5 kilogramo behar dira. “Baina garrantzitsua da bestalde,

garagardoaren prozesurako, horrek eragiten duelako hartxidura, azukrea jaten du eta alkohola sortu”. Legamia laborategietatik ekartzen dutela aitortu dute: “Garagardoaren kultura oso hedatua dagoen herrialdeetan legamiak lantegian bertan mantentzen dituzte bizirik. Hori da onena produktuaren estandarizazioa eta kalitatea bermatzeko. Baina lantegian laborategi profesionalik ez daukagunok beste laborategietatik ekartzen ditugu”. Bogakoa Bartzelonako laborategi batetik ekartzen dute, “zaila da inguruan aurkitzea”. ●



Zer egiten du: Artisau garagardoak.

Langile eta bazkideak: 7.

Noiz sortua: 2014an.

Egoitza: Mungian.

Harremanetarako:

944 06 28 48 / info@boga.eus

IRAITZ MADARIAGA ETXEBARRIA

Kazetaritzako lehen pausoak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Erredakzioan egin dut topo Iraitz Madariaga Etxebarriarekin. Lehen hilabetea du praktikaldian eta hor ari da jo eta su, egunerokotasuneko berri izan daitekeenaren informazioa lortu, kontrastatu, albisteak idatzi, sare sozialetan zabaldu... Hori izango du, laburrean, irailera arteko lana. Kazetaritza ikasketak burutzen ari da unibertsitatean eta hirugarren mailako lan-praktika du Argiakoa. Berarekin aritu naiz pixka bat ikasketez, lanaz, esperientziatz...

Hasiberria da kazetaritza lanetan muturra sartzen. Urtarriletik ekainera bitartean, EHUko NOR Ikerketa taldean aritu da praktiketan, Eusko Jaurlaritzak ikerketa munduan hasi nahi duten gazteei ematen dien Ikasiker bekarekin. Bertan, audientzia ikerketekin eta ikus-entzunezkoen inguruko azterketekin aritu dira lanean, eta hala azaldu du berak: "Idatzizko komunikabide bateko lanarekin zerikusirik ez duen arren, esperientzia aberasgarria izan da hedabideen panorama ulertzen laguntzeko".

Argian kazetaritza idatzia landuko du batez ere lau hilabete hauetan. Beti gustatzen zait elkarrizketa hauetan galdetzea zein gai gustatzen zaien gehien, zerekin sentitzen diren erosoan... eta Iraitzen erantzunekin identifikatu samar sentitu naiz, inguruan beti izaten baititugu gaiak, lanak, norabideak oso garbi dituen jendea; beste batzuk, berriz, noraezean iritziko du zenbaitek, lorez lore ibiltzen garen erleen pare. "Ez daukat gai batekiko lehentasunik. Uste dut gai bat zenbat eta



hobeto ezagutu, orduan eta gehiago hurbiltzen zarelarengana, zure egiten duzula". Arlo asko ukitzen ari da albisteak sortzerakoan eta "oraingoz" politika gaiek erakarri omen dute gehien.

Erredakzio baten egunerokotasunera ohituta amaitu nahiko luke lanaldia irailean: "Erritmoak zein diren ikasi eta dinamikan integratu nahi nuke. Berriei ikuspuntu egokirik heltzen ere ikasi nahi dut, iturriak behar bezala kontrastatzen jakin eta informazio osatua ematen ahalegindu".

Lasarte-Oriako lantaldean "giro ona" aurkitu duela dio. "Egunero aktualitateaz informazioa kalera tzeaz gain, kazetari guztiak dira askeak ere kudeatzen dutenak. Lan karga handia dute eta dinamika oso antolatua topatu dut", azaldu du.

Ongi etorri, Iraitz, eta atera ahalik eta zuku gehien egonaldia. ●

IPES, Olatukoop, TEKS, Ipar-Hegoa, Manu Robles-Arangiz eta Iratzar Fundazioko ordezkariak ziberburujabetzaren buruzko eztabaidarako oinarriak aurkeztu dituzte. Subiranotasun digitalerako politikak eskatu dituzte eta gaiari heltzeko sarea sortzeko deia egin dute.

"Azken hamarkadetan bizkortu egin dira sistema kapitalistaren egiturazko zenbait fenomeno, hala nola finantza-globalizazioa, lanaren prekarizazioa, demokraziaren pribatizazioa edo berotze globala. Testuinguru horretan, gainera, jauzi kualitatibo bat gertatu da garapen teknologikoan. Garapen hori soilik elite finantziarioaren alde egon ordez, jendartearen zerbitzura jar dadin, iruditzen zaigu digitalizazioaren egungo estadioaren inguruko eztabaida publiko serio bat hasteko unea dela. Zehazki mahai gainean jarri nahi dugu garapen teknologiko honek demokrazian, lan munduan, hezkuntzan eta humanitatean izan dezakeen eragina.

Demokraziari dagokionez, ezinbestekoa da baliabide eta zerbitzu digitalak ondasun komun gisa ulertzea. Informazioa sistema demokratiko erreal baten odola da, deliberazio funtzioa ahalbidetzen baitu, baina gaur egun merkantilizatuta dago. Horregatik, gure egitura digitalen kontrola berreskuratu behar dugu.

Bestalde, lanaren prekarizazioa eta enpleguaren suntsiketa hauspotu ordez, automatizazio-prozesuak bizitza duin eta kolektiboen alde jartzea proposatzen dugu.

Gure ustez, horrekin lotura handia du hezkuntzaren digitalizazioak. Konpetentzia digitalei buruzko diskurtso berriek subjektuak kontsumitzaile perfektu edo ekintzaile leihakor bihurtu nahi dituzte. Arlo horretan ere, premiazkoa da desmerkantilizazio-prozesuei ekiteta eta hezkuntza-arloko zerbitzu digitalak eskubide kolektibo gisa ulertzea.

Azkenik, gure ustez funtsezkoa den galderetako bat humanitate digitalei buruzkoa da: zer inplikazio dago memoriaren, historiaren, ondarearen, hizkuntzaren eta ikerketaren arloetan?".

LORALDIA, GOZAMENA ETA EROMENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Egun argiak mozteari ekin dio, nabarmena da. Lurrak eguzkiaren bueltan egiten duen dantzan landareentzako erabakigarriena den zikloa osatzen du: gure egutegiaren urtearen lehen erdian eguna luzatzea eta bigarren erdian eguna moztea. Abiatu berria da laburtze hori.

Landareentzako mugarria da eguna luzatzetik mozteko kereta hori. Ez nolanhiko mugarria, arta mugarria, janariaren mugarria, alegia. Eguna mozteak negua badatorrela adierazten du eta ordurako lanak aurreratu beharraz jabetzen dira landareak. Batez ere bere bizitza urtearen barruko zikloan osatzen dutenak. Loraldi nagusiak izan dira edo oraintxe daude furialdian. Udazkenean edo neguan hil aurretik lore horietan fruituak osatu behar dituzte, haziak daramatzaten fruituak, bera bezalakoak, bere izerdikoak izango diren landare berriak sortuko dituzten haziak.

Guk animalioak geure odolekoa bezalaxe, landareek bere izerdiko berriak sortu nahi dituzte, bere kasta, bere enda, bere leinua, bere familia gal ez dadin. Guk landareei begiratzen diegun denak berdinak, berdin-berdinak direla iruditzen zaigu. Ezta gutxiagorik ere! Hemen ere gure moduan bakoitza bat eta bakarra da. Belaze bati begiratu eta imagina ezazu: horko belar bakoitza zu eta zure ingurukoak bezala bat eta bakarra da. Horri, bereizketa horri eutsi nahi dio bakoitzak bere haziak hedatzean.

Haziak sortzeko bidean lorea da abia-burua. Lorea maiz ez da ikusi ere egiten,



Arrosodotik guk arrosa soilik nahi dugu. Bere gogo guztiak ahaztu ditzala eta etengabe loreak emateko esklabu bihurtzen dugu, gure gozamenerako.

eta beste askotan ikusgarria da, usaingarria da, nabarmena. Gure inguruan nahi dugun landare asko horrexegatik jartzen da, edertasunagatik. Bere lorearen edertasuna gozatu nahi dugu.

Edertasuna. Izan ere, edertasun ttantta bat asko da, asko eta bost.

Arrosondo bat (*Rosa spp.*) lorez gainezka ikusten dugunean ahazten dugu landare horrek bere amonaren amonaren amonaren bidetik ondutako izaerari eta genetikari eusteko eta hobetzeko biribildu dituela kolore, forma eta usain apartekoak dituzten artelan horiek. Ahazten dugu loreak fruitua emango duenik, horretarako bertan sexuen elkartze zalapartatsua gertatu behar duenik, intsektu polinizatzaileek beste loreren baten polen arra ekarriko duenik, ernalketa gauzatuko denik, aitaren eta amaren izaerak hibridatu eta sekula izan gabeko berri bat sortzeko mirakulua hazi bakoitzean gertatu behar duenik. Hori dena du gogoan arrosaondoak.

Guk arrosa soilik nahi dugu. Bere gogo guztiak ahaztu ditzala eta etengabe loreak emateko

esklabu bihurtzen dugu, gure gozamenerako. Ahaztu zure amonak, ahaztu zure kasta eta eman soilik loreak; loreak eta loreak.

Horretarako teknika berezi bat dugu: loreak zimeldu ahala ebaki eta erauzi amari fruitu eta hazi bilakatuko liratekeen eme ernalduaren zatiak. Ama erotu egiten da, fruiturik ezingo du sortu eta bere kemen guztiarekin lorea eman eta lorea eman arituko da. Ingelesek deadheading "ihartutako burua moztea" esaten diote teknika horri. Guretzako lore ihartua da, arrosaondoak bere ondorengoak sortzeko muina du, eta galdu egin du. Bata bestearen atzetik galdu. Erotu? Erotu beharko! ●

BURUXKA

UZTATIK JASO GABE GELDITU DIREN ELIKAGAIAK APROBETXATZEKO PROIEKTUA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Oso antzinatik datorren ohitura da buruxka-biltzearena, garai batean familia txiroetako emakumeek eta umeez egiten zuten batik bat". Buruxka proiektuko Elena Cerceda Payret koordinatzailearen hitzak dira. Baina zer da zehazki buruxka-biltzea? Gaztelaraz *espigamiento* esaten diotena, hitz motzean, nekazariak uzta jasotzerakoan bildu gabe utzi dituzten barazki eta fruituak jasotzea da. Uztako "soberakinak" lirake buruxkak edo galburuak, eta Herrialde Katalanetan eta beste zenbait lekutan horiek aprobetxatzeko martxan dauden egitasmoak eredutzat hartuta, 2020an Lizarraldeko Deierri bailaran Buruxka proiektu pilotua abiatu dute.

BARAZKIEI BULLING-IK EZ

"Barazki eta fruituak jaso gabe gelditze-ko arrazoi desberdinak egon daitezke: hartzeko zailak direlako, itsusiak direlako, estandarretatik kanpo daudelako, merkatutik kanpo gelditu direlako...", dio koordinatzaileak. Nafarroan Tuterako "tomate itsusia" zein preziatua den ikusita, kuriozosa da ezaugarri estetikoek hainbesteko garrantzia izatea gainontzeko barazkietan. Proiektuko kideak argitu duenez, ekoizpen txiki eta eta ekologikoetan galerak askoz txikiagoak dira, baina galkorrak diren produktuen eta azalera handiagoa duten ekoizpenean %25 edo %30 ingurukoak direla ondorioztatu dute osatu duten txostenean.

Galera horiei buelta emateko, boluntarioekin auzolanak antolatzen ditu Buruxka proiektuak, eta Deierriko ekoizleen "soberakinak" jasotzea eta gizarte-erakundeak banatzea da haien lana. Ekainean, esaterako, Leringo gerezi ekoizpen batean aritu dira. "Sentsibilizazioarako garrantzitsuak dira buruxka-bil-



ketak, izan ere, boluntarioek elikagaien galeraren inguruan hausnartzen dute eta nekazarien lana baloratzeko ere baliu dute", dio Cercedak. 2020an, 76 lagun aritu ziren bolondres, eta guztira 2.800 kilo elikagai bildu zituzten: tipula, mahatsa, piperra, almendra, sagarra eta borraja.

INSTITUZIOAK, NEKAZARIAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK ELKARLANEAN

Deierriko Udalak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta INTIA Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuak elkarlanean abiatutako proiektua da Buruxka. Momentuz, eskualdeko zazpi ekoizle egin dute bat egitasmoarekin, eta banatutako elikagaiak 400 familia baino gehiagotara

iritsi dira. "Elikagai freskoak eskuratzeko zailtasunak izaten dituzte elikagaien banaketa egiten duten gizarte-erakundeek normalean, eta horregatik, garrantzitsua da haientzat gure ekarpena", dio Cercedak. Karitate ikuspegitik baino, kalitatezko elikagaiak eskuratzeko eskubidea guztiona izan dadin egiten dute lan.

Proiektu pilotua abenduan bukatu da, baina udalak ekonomia sozial eta solidarioko enpresa bat sortu nahi du orain elikagaien xahuketari aurre egiten jarraitzeko. "Galkorrak diren elikagaiak eraldatzeko eta haien bizia luzatzeko asmoz probak egiten ari gara, NUPekin elkarlanean", azaldu du Cercedak. Mahatsarekin, tomatearekin, azenarioarekin eta borrajarekin marmeladak eta kremak egiten hastea da ideia. ●



“Nire bizitza izan daitekeen anekdota ez zait arterako interesatzen”

Ana Arsuaga Verde Prato

Zuhaizpea, zumitzezko eserlekua, eta beltzezko neska bat eserita, atzean euskal paisaia idilikoaren arrastoak dituela. Osagai horiek ditu Verde Pratoen *Kondaira eder hura* diskoaren azalak, Ana Arsuagak berak pintatuak, eta margolan horrek eraman gaitu Tolosako Urkizu auzora, musikariak umetan asteburuak igarotzen zituen baserrira –han kokatuta baitago margolaneko eszena–. Asmo sendo bat genuen –margolanaren erreplika fotografikoa egitea–, baina bideak (eta lanbroak) eraman gaitzan utzi dugu, ezinbestean.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Haurtzaroko asteburuekin lotzen du Urkizu auzoa Ana Arsuagak (Tolosa, 1994), eta aitaren ortuarekin, eta bazkalondo amaigabeekin, eta mahai bueltako kantuekin. Oroitzapenak nahasten zaizkio argazki albumetan izoztutako irudiekin, nahiz eta antzerako kontuak agertzen diren bietan: patxada, familia, ospakizunak. Dena oso bukolioa. Hara itzultzen saiatu gara udaberri amaierako goiz batez, eta orduko haren ordez beste Urkizu bat topatu dugu, ez oso bestelakoa ere –sagarrondoak loretan, bukulikotasunak bere horretan jarraitzen du–, baina lanbrotua, barea, eta ezinbestean, Arsuagak pinturetan irudikatzen duena baino tristeagoa.

Ez du lotura agerikorik ikusten bere margolanen eta musikaren artean, baina Urkizuko irudietan oinarritutako olio pinturekin kontrakoa pasa zaio: abestien estetikarekin bat egiten zutela irudituta, diskoaren azala eta kontrazala

ilustratzeko baliatu ditu. “Euskal Herriari oso lotutako estetika dute abestiek. Doinu motak –abesti herrikioen oihartzunak dituztenak–, konposatzeko modua, euskaraz abeste hutsa bera... nahi nuen iruditeria ere horrekin bat etor zedin”. *Kondaira eder hura* (Lago/Crater - Plan B Rec) diskoko zazpi abestiek istorio modukoa osatzen dute, ikuspuntu desberdinetatik –ama, mutila, lagunak, haurra, aita, anaiak, neska– kontatuz nola mutil batek herritik partitzen duen, ingurukoengan hutsune handia utziz. Familiaren ideiak pisu handia du kontakizun horretan, eta hor da haurraren ahotsa ere, “metaforikoagoa, ez hain literala, kontakizun orokorretik ateratzen dena pixka bat, off-eko ahots bat balitz bezala”. Kutsu teatrala du diskoak, eta pertsonaia bakoitzak narrazioa osatzen du pixkanaka, opera batean bezala. “Henry Purcellen *Dido eta Eneas*-ek liluratu ninduen. Azken eszenan kontaktzen

da neskaren aiene zauritua –abesti zogarria da–, oso modu tragikoan, neska kantuan eta suizidatzen ari da aldi berean. Nik ordurako hiru abesti eginda nituen, eta hitzei erreparatuta, konturatu nintzen errepikatzen zen gai bat zegoela hor, opera hartakoaren antzekoa: zu joan egin zara, eta ni hemen gelditu naiz”.

Arsuaga bera ere partitze moduko batean harrapatu dugu. Bilbon bizi izan da Arte Ederrak ikastera joan zenetik, eta jaioterrira bueltan da orain. Atzean uztera doa musikan asko eman dion aldi garrantzitsu bat: Mazmorra eta Serpiente taldeetako parte izan zen Bilbon, eta hangoa da Verde Pratoen hazia ere. Jon Mantzisorrek hots egin zion behin, azalduz Le Larraskito Klubean kontzertu experimental batzuk antolatzeak zirela, eta ea ezer presta zezakeen egun hartarako. Proposamena onartu, eta lau abesti osatu zituen egun hartarako, “jo-

las moduan” –Neskaren kanta, *Amaren kanta*, *Mutilaren kanta* eta *Neri deritzait Galtzaundi* kantu tradizionalaren bertsiotzat. Pare bat astean egin zituen. “Ez da ohiko erritmoa”, dio barrez, “abestien lehen zirriborroa zen, gainera”. Larras-kitoko emanaldi hartatik beste bi kontzertu atera zitzaizkionez, kanta egiten jarraitu zuen, gero eta ilusio handiagoz. Halako batean, Jon Agirrezabala soinu teknikariak aipatu zion abestiak grabatzen lagunduko ziola –zuzeneko baten modura–, eta saio hartako materiala sarean jarri zuen entzungai. Estudioko disko bat grabatzeko garaia iritsi zela erabakitakoan, hainbat zigilu aztertu eta Plan B-rekin ateratzea erabaki zuen. Eta horrela, gaurdaino.

OBRAK HITZ EGITEN DU

Lanbroak planak moldarazi dizkigu: Verde Pratoren disko-azalaren erreplika atera nahi genuen, pintura argazkira eramanez, Arsuagaren umetako baserri idilikoaren parean. Atertu artean, autobus paradako markesinan –auzo guztian topatu dugun aterpe bakarrean– babestuta segi behar izan dugu hizketan. Ibilian mamitu da Verde Prato, harik eta bizitza propioa hartu duen arte. Zerikusirik ez Serpiente eta Mazmorra taldeetan bizitakoarekin, aipatzen duenez: “Taldea batean besteen nahiak ere hor daude, ezin zara hain diktatoriala izan. Bakarka, aldiz, norberak jartzen du bere esijentzia maila”. Eta ez da kasualitatea berak xehetasun guztiak zaindu izana. “Ez zait txorakeria iruditzen lan artistiko bat egitea. Zerbait egiten duzunean, lan horrekin gauza asko esaten ari zara. Nik hori kontrolatu nahi dut: zer ematen diodan jendeari, zergatik, zer interes daukan... izugarri serio hartzen dut hori”.

Artistei egiten zaizkien elkarrizketetan-eta, diskurtsoaren inflazioa nabari du, tema modukoa gai batzuekiko duten posizioa hitzez azal dezaten. Harentzat, ordea, artista bat elkarrizketa ematen hasi aurretik ari da gauzak esaten. Kontua ez da obrak hitz egin behar duela: obrak *de facto* hitz egiten du. Arsuagarentzat, musikari batek hartzen dituen erabakiak ez dira ausazkoak: “Neska bat bakarrik jotzen, dena bakarrik konposatzen, euskaraz abesten, abesti oso minimalistak egiten... Nahi duenak galde-tuko dit erabaki horiei buruz, baina nik ezin dut nire lanaren bidez baino hobeto erantzun. Horiek denak nire erabakiak izan dira, eta horrek jada asko esaten

du. Zer gehiago nahi duzu esatea? Nire erabaki estetikoetan dago nire posizio politikoa”.

Horregatik aritu da diskoa osatzen duten alderdi guztien arteko koherentziaren bila. “Egia da sorkuntza prozesu batek norberaren kontzientzia gainditzeko duela. Ezin dut hauteman egiten dudana guztia, ez naiz neure burua hain kanpotik ikusteko gauza. Hala ere, emaitzarik ezustekoenak ere bat etorri behar du adierazi nahi duzunarekin, edo adierazi nahi ez duzunarekin”. Abestien sorkuntza prozesuak alderdi kontzientzia bezainbat du inkontzientea. Lehenik, alderdi inkontzientea identifikatzen du Arsuagak: “Bizipen bat edukitakoan lanean hasten zara, eta hor zure emozioak, gorputza eta kontroletik harago doazen ezagutzak ari dira lanean”. Behin hori igarotakoan, kontrolaren fasea hasten da: “Lehen zirriborro horretatik zer den aprobezagarrria eta zer ez erabaki behar duzun unea da hori. Pentsatzen duzu ea material hori nola eraman dezakezun une indartsuetara, edota une esentzial-oinarrizkoetara”. Bere lan egiteko jarreraren etengabekoa da sortzen ari denaren gaineko gogoeta. Sorkuntza ziklo osoa betetzen du: sortu-distantzia hartu-gogetatu-forma eman, eta berriz ere hastera. Norbere lanarekin autokritiko izatearekin lotzen du jarrera hori. “Ez dut edozer onartzen. Begiratzen diet beste ogibideei, eta, adibidez, ikusten duda-

nean nire aita batera eta bestera –etxeak pintatzen egiten du lan–, galdetzen diot neure buruari: zer eskubiderekiko egingo dut nik “besterik gabeko” abesti bat? Edota: zergatik da garrantzitsua abestiak egitea? Nik ez ditut hondakinak sortu nahi”.

“Neska bat bakarrik jotzen, dena bakarrik konposatzen, euskaraz abesten, abesti oso minimalistak egiten... Nire erabaki estetikoetan dago nire posizio politikoa”

KONBENTZIOAK EZIN ASETA

Abestiak egiterakoan jarrera “puru” batetik abiatzen saiatzen da Arsuaga, eta musika estilo jakinetara errazegi ez lerratzen. “Niretzat esperimentalak izateak hori esan nahi du: saiatzea ahalik eta aurreiritzi gutxieneko jarreratik gerturatzen sorkuntza prozesura”. Behin hasierako materiala eskuartean duela, pentsatzen hasten da abestiaren



ANA ARSUAGA



egituran eta “fase kontziente” horretako beste auzi batzuetan. “Norbere eza-gutzak agerikoagoak dira bigarren une horretan. Baina, hasieran, saiatzen naiz nire inertziek muga ez nazaten. Abesti bat egin nahi badut baserik gabe, eta gero une batean basea sartu, eta gero berriz ere kendu... zergatik ez? Zentzu horretan izan nahi dut *purua* edo *inozentea*”. Hor kokatzen du sorkuntzarekiko bere posizioa: konbentzioa besarkatuz ezin aseta, zalantzan –eta, beraz, esperimentazioan– topatu du bere eremua. “Ezinez gona daukazu, gauzen zentzua topatzeko gogoia, zerbait benetakora iristekoa. Bizitzan bertan pasatzen den bezala. Galdera beti jakinmin batetik dator. Benetan gehiago ikasi nahi duenak beti egingo dizkio bere buruari galderak. Artista zarenean berdin: iristen zaizunarekiko kritikoa bazara, beti ariko zara jarrera esperimentaletik sortzen”.

Musika genero jakinetara gerturatzen denean ere, genero horiek dakartzaten patroiak auzitan jartzen saiatzen da beti. Klase guztietako etiketetan sailkatu izan diote bere apustua –euskar folklorea, neokostunbrismoa, kantu tradizionala–, lehengaitzat darabiltzan folklore elementuen jatorrizko esanahia auzitan jarri nahi ez balu bezala. Zenbaiten begietara, balirudike folk tradizionalaren olatu berria besarkatu duen artista bat gehiago dela. Kontrara, moda konbentzio bat gehiago bezala bizi duela dio Arsuagak, eta hortaz, beste konbentzio guztiak bezala baliatzen duela: kritikotasunez. “Elektronikako baseak modan badaude eta nik elektronikako baseak egiten baditut, bada oso ondo, ez dut horregatik saihestuko. Tradizioa oso bogan badago, eta baldin bada zerbait benetan interesatzen zaidana, ez naiz beste zerbait egiten hasiko. Baina saiatzen naiz kointzidentzia izan dadin, ez

nahita bilatutako zerbait”. Orain gutxi, folk espainiar berriaren parametroetan sailkatu zuten elkarrizketa batean, Rodrigo Cuevas eta bestetzuen zaku berean. Alta, iruditzen zaio Euskal Herrian joera hori ez dela berria. Aipatzen ditu 60ko hamarkadako hainbat izen, Amaia Zubiria, Haizea, edota Mikel Laboa bera: “Hemen betidanik egon da tradizioari oso lotutako musika, eta ni hemengo naizenez eta hemengo testuingurutik edaten dudanez, horri baietz esaten diot –beste gauza batzuei ezetz–. Edonola ere, ez dut ezer asmatu”. Laboaren lana miresten du, oroz gain: “Tipo izugarri interesgarria da, askotariko zirkuluetan miretsia. B alde izugarria dauka, baina era berean eskolan irakasten dizute. Horrek itxaropena ematen dit”.

“ Iristen
zaizunarekiko
kritikoa bazara, beti
ariko zara jarrera
esperimentaletik
sortzen”

AUZI UNIBERTSALEN ATZETIK

Atertu du lanbroak, atera gara markekinatik, eta abiatu gara Arsuagaren umetako baserri ingurura. Apenas igarotzen da Urkizutik azkenaldian, “Herrioko bidean edo halako mendi-bueltaren batean ez bada”. Elkarrizketaren hondarrean, hizpidera ekarri du ahotsa dela Verde Pratoren funtsa, normalean abestiak abiatzen dituen tokia. Aldiz, korpilatsua zaio hitzak idaztea. “Hasten

naiz lengoaiarekin jolasten, eguneroan komunikatzeko gehien erabiltzen dudana tresnarekin, baina iritsi beharra daukat beste zerbait egitera. Oso eragiketa zaila iruditzen zait”. Hitzak idazterakoan bere bizipenetatik abiatuagatik erreparo handia ematen dio biluzteak, eta tentsioz bizi du ariketa. “Ez zait baxterez interesatzen jendeari nire bizitza kontatzea; hortik atera nahi dut, kosta ahala kosta. Arte plastikoetan nahiko zabaldua ikusten dut norbere biografia eta lana hertsiki lotzeko jarrerara, baina niri zalantzak sortzen dizkit. Interesgarria izan daiteke, bai, baina gehienetan anekdotan gelditzen dela iruditzen zait. Eta nire bizitza izan daitekeen anekdota ez zait interesatzen, ez behintzat arterako, bere baitan amaitzen delako, eta ez delako interesgarria pentsatzeko, hausnartzeko. Aldiz, badira gai batzuk abesti herrikoietan ohikoak direnak – familia, herria, maitasuna, heriotza– eta sekula agortzen ez direnak, beti misterioa izango direlako. Hortik beti atera dezakezu zerbait. Nahiago dut auzi unibertsalago horietara hurbiltzen saiatu”.

Baserria parean daukagu, azkenik. Ate-leihoak berde, fatxadako zuria itzailixea. Haztamuka gerturatu gara, baina iruditurik inguru osoan inor ere ez dabilela, atarirainokoa egin dugu. Han da pinturan ageri den intxaurrendoa, azpian harrizko mahaia duela. Eseri da Arsuaga zuhaizpean, baina argazkilaria gogor ekinagatik, ez du zentzurik erreplika perfektuarekin tematzeak: umel dago ingurua, argiak ez du koadrokoarekin zerikusirik, atzeko paisaia gurdi handi batek estaltzen du. Mugitu dugu gurdia, baina alferrik da. Erretratu sesioa eginda, autoan sartu eta bagoaz Urkizutik. Lanbroa hasi du berriz, eta halako arindu batek hartu du hasierako etsiaren tokia. ●



LIBURUA

Txinpartak



111AKADEMIAEUS

UDABERRIA SUTAN JOXEMARI ITURRALDE

PAMIELA, 2021

IGOR ESTANKONA

O nartu behar dut haikuekin gertatu ohi zaidala lehenbizian amodio handi bat, eta gerogarrenean nekatu egiten nautela. Joxemari Iturralderen liburua hartu nuenean udaberria zen, orain udan ari naiz idazten.

Udaberria sutan. la ehun haiku (Pamiela, 2021) irakurketa atsegina da. Gure letratan oso erabilia izan den haikuaren teknikarekin egindako zertzelada hauetan kausi ditzakegu gereziak, gauak, putzuak. Edo poema aski filosofikoak, pilulen antzera irensten direnak: “Denbora izanen/ da errautsa haizeak/ eramateko”.

Hainbeste iragarki labur, ideia sinplista eta efektu bereziren artean zaila da bereiztea haiku bat gaur egun. Haikuz beterik daude bazterrak, batzuk diote hartzeko zita txertorako, beste batzuk diote jan hemengo prozesatuak, edo

etorri gure telefono konpainiara. *Jimu* Iturralderen haikuek, ostera, aho zapore luzea uzten dute, eta irakurleoi dioskue: “Urperatuko/ den itsasontzia da/ ohea gauetz”.

Shushiaren antzera, hau honen barruan jarrita eta hau honekin konbinatuta, Iturraldek lortu du ez aspertzea, batez ere bera, haiku liburuei maiz igartzen zaien mekanismoa ezkutuan gordez eta irakurleari gozamina soilik utziz. Esaten dena ia ehun ahapalditan badator, iradokitzen direnak dira hemen itsas hondar infinituak, gure baitan hitzek eta hitzen faltak sortzen duten sonarraren irudi leuna: “Egun bat da bi/ zurekin baldin banaiz/ bi bat zu gabe”. Eta ez dakizu zehatz denbora laburtu egiten den edo luzatu, haikuaren kondena baita, eta gozotasuna, pasadizoa dela infinitua,

behin-behinekotasuna betiko egia. Haiku epidermiko ere egin daiteke, noski, baina zeinen ederra den *Jimuren* erara egin ez gero, edo Magdalenaren erara, edo Igerabideren erara. Azken aldira gure literaturak gaurkorik eta biharrik gabeko pieza txiki solte ederrak eman dizkigu, subkontzientearen gozagarri. Haikua tri-bializatu egin daiteke, edo idatz daiteke: “Txalupatxo bat/ Mutrikuko kaian/ zure zain dago”. Muga-mugan dago gatzbakotik, eta ostera liburu honetan dir-dir egiten du pieza honek, beste hainbat piezak legez. *Udaberria sutan*, finean, abusu bihurtu orduko da bukatzen, eta askotan da berriro hasten eta bukatzen, haiku beste aukera baitaizka irudimenarentzat. *Udaberria sutan* da horixe, udaberria sutan, suzko euri bat zerua zeharkatzen, txatarra dariola. ●



MUSIKA

Basahaideen mezua eta habia



ANIMALIA NAIZ ETA HABIA

LAGUNARTE, 2021

XALBA RAMIREZ

Urrer handia da gure iragana. Eta urre handia gure oraina. Nafarroa Beheretik eta Lapurditik datorren soka hirukoteak abantailarekin jokatzeko du, gure iraganaren urrea bizirik mantentzen delako bertako oihantetan, zühaintetan, kantarietan.

“Humanitatea bere barnatasun handian hartzeko” sortutako Habiak harien bitartez hari bat egiten du tradizioaren eta molde modernoaren artean. Baina ez, ez autotunearen ezta sintetizagailuen bidez ere. Amaia Hiriartek, Maia Iribarnek eta Elena Hairak, txeloren, arrabitaren eta biolaren bitartez asmatu dute unibertso berri eta bikaina, Kristof Hiriartek zuzenduta.

So-n sokarekin esperimentatuz, *Les veilleuses*-en ahotsekin. Diskoa, osorik,

bidaia hipnotiko bat da, armonia eta erritmo aberatsaren iturritik edango dugu. Iturri zaharretako ura –jakina den bezala– mugagabea delako, beti berria delako.

Urre Handia kantaren melodiak harrrapatu nau. Fantasiatzko pelikula bateko galderari basahaireen tonalitate bereziarekin erantzuten die. *Txoriñoa Kaiolan*-en, moldaketa lan finean, pizcicatoan tonu minorraren eta maiorraren arteko anbiguateak irekitzen ditu askatasunaren aukera guztiak: “Zeren, zeren, libertatea zoinen eder den”.

Hain zuzen, ez garelako kontzientze zenbat libertate ari garen galtzen gure basoetako doinuen galerarekin batera. Ion Celestinok *Berria*-n esandakoak ekar ditzakegu hona, berdin

du noiz irakurtzen duzun hau: euskal musikaren ezaugarri nagusia ez dela hizkuntza, gehiago duela afinaziotik, erritmotik... eta horrek guztiak zuen askatasunetik.

Aberastasun horri lekua egin behar zaio. Ez folklore gisa –kopia monotono eta errepikakor gisa–, tradizioaren ikuspegi berritzaile moduan baizik. Km0 izateaz gain, eder, aberats eta mugagabea delako.

Disko batek eduki behar duen (ia) guztia dauka honek. Denboran irauteko eta garaikideak izan ginela harrotasunez esateko moduko lana. Nork eskainiko dion arreta, nork hartuko duen arnasa sakon bertan, hori beste galdera bat da. Bitartean, saia gaitze denbora galdua berreskuratzen. ●



Komunikazioa-inkomunikazioa: tradizioa eta abangoardia

 XALBA RAMIREZ

Beñat Achiary, Bartzelonara bidean zuten Artze anaiekin, ikuskizuna eskaintzera, txalaparta eta ahots inprobisazioa abangoardia ziren garaian –eta ez soilik ekitaldietarako betekizuna-. Auto motela, errepide luzea, aulkia erdi etzana, eguzkia kopetan, eta horrela egin zion galdera: “Joxean, zer da tradizioa?”.

Denbora hartu omen zuen poetak erantzuteko, aforismoen laguna zelako edo, eta honela erantzun: “Tradizioa, gogoratzea duk. Eta zer da gogoratzea? Presente egitea, berpiztea”. Achiaryk kontrabandista papera aitortu du horrela, tradizioari eta abangoardiari buruzko *Non dago Lekeitio?* jardunaldietan.

Komunikazioa-inkomunikazioa erakusketaren aurrekaria izan da, Maddalen Lujanbio, Itxaro Borda eta Xabier Erkiziak zuzenduta. Zer atera daiteke gaizki?

Erantzun argirik ez dago, baina sorpresak bai, dozenaka. Bertolt Brechten emanaldi bat Donostia frankistan 1967an? Irudi bidezko hiztegi bat? Esanahirik gabeko poesia gaztelaniazko preposizioekin eta ausazko hitz alemanekin? Laboari egindako telefono dei bat poema al da? Zer ikusteko dauka mundu osoko instrumentu tradizionalen kontzertu inprobisatu horrek bertan? Txorien grabaketek zer egiten dute hemen? Eta Jose Mari Zabalaren *Axut* ikus al daiteke bertan?

Ausazko loturek badute jatorri bat. Lekeitiotik gertu dagoen Gardata base-rri-auzoan Laboak entzundako zaratatetik, euskararen soinetatik, eta gerrako orro oroitzenetatik abiatutako Lekeitioak saio experimentalak dira erakusketaren abiapuntua. Laboak, euskarak eman duen kantagilerik zoragarrienetakoak, ez zituen euskaraz egin bere kantarik unibertsalenak. Oihu gutural,

KOMUNIKAZIOA-INKOMUNIKAZIOA ERAKUSKETA

NOIZ: Donostiako Tabakalera

NON: maiatzak 28 - abuztuak 29

harmoniko, afoniko eta desafinatuen baturatik osatutako piezak, hizkuntza guztien gainetik hunki dezakeelako Punekeo, Algeriako edo Limako bizilaguna.

Laboaren ondoan izan ziren Artze, Zabala eta Zumetaz gain, Zeruko Argia eta Radio Popular topatzen ditugu, Jarrai antzerki taldea, Tarek Atoui, Pauline Oliveros, María Salgado eta Fran MM Cabeza de Vaca, besteak beste.

Erakusketak erakusten ditu, hain zuzen, Achiaryren galderaren barruan mugitu diren erantzunak. Tradizioa eta abangoardia eskutik doazela konturatzen gara, azken batean. Artzek esan bezala: “Tradizioa zaharrik zaharrena izan arren –aspaldi-aspaldikoa lehen egun hura bera baino ere zaharragoa denez– berririk berriena baino berriagoa da, inoiz zahartzen ez delako”. Ez dezagun nahasi folkloreakin. Are gutxiago folklorismoarekin. Tradizioa sortzea delako. ●



Hitz gezidunak

* Gaia: desagertutako musika taldeak

GERTATU GORTZA	ALE, BIHI POSTUA	GIZONEZKOA BERE GURA- SOEKIKO	PARE BAT MENDEBAL- DEAN, ZEN	SAMIN, OINAZE NAIZEN HONEK	IREKIGUNE, BARRUNBE *	KOKOTSEKO ILE BASAKI	
		GORROTO, HERRA BIZI AMERI- ZIOAREN IKURRA		NEHOLAZ AMPEREAREN IKURRA			
* EROMENAK					JOKAMOLDEA UTIKAN!		
BI GEHI BI	GAREN HAUEK BIDEA HARTZE					BROMOAREN IKURRA ZORRIZTO, ZORRITSU	
		LABOREEN ALEA EHOZ ATERATZEN DEN HAUTS				BARAZKI HOSTOTSUA *	AHOGOZO
BAIEZKO 3,1416							
	ROENTGEN DAUKAN					URKAMENDIA ... OTOAN, EZUSTEAN	
ERNE HITZARME- NAK		BEREHALA (ALDERAN- TZIZ) ALDAKI	EGUZKIA	BOKAL BIRIBILA OKA	* ZALANTZA PARTIKULA		
			EHUN MOTA PLATINOA- REN IKURRA			OXIGE- NOAREN IKURRA EZ EME	
HERRI HIZKE- RAN, ZER *		LAPIKO HANDI 500 ERROMA- TARRA					
				ZURE			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		7	3			6	
	8				9		
2			7	4		8	
	4				1		
	1	8		6	5	2	
		9				4	
	9			1	2		3
		4				1	
	7			3	6		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Adar moztu
2. Guztiak
3. Gizonezko senitarte
4. Koaderno
5. Beldurra

EBAZPENAK

1. ADAKI
2. DENAK
3. ANAIA
4. KAERA
5. IKARA.

4	1	7	2	8	5	3	6	9	2
5	3	4	6	9	7	2	1	8	3
8	9	6	4	1	2	7	5	3	1
7	2	9	1	3	5	8	4	6	7
3	1	8	9	6	4	5	2	7	3
6	4	5	2	7	8	1	3	9	6
2	6	1	7	4	9	3	8	5	4
4	8	3	5	2	6	9	7	1	8
9	5	7	3	8	1	4	6	2	5

E	Z	V	L	T	E	D	N	E	V
U	R	E	Z	A	P	L	N	E	Z
R	O	T	K	O	I	K	N	Z	I
A	R	I	P	O	E	A	I	N	A
V	U	R	K				R	I	N
K	A							B	A
Z	I	T	O	I	Z				L
A	V	A							U
R	B	U	J						G
V	A	R	O	L	A	R	K	A	V
Z	V	L	A	N	O	N	E	M	V
I	S	I	K	I	N	I	V	A	V
B	Z	M	B	S	G	A	V	K	Z

Asier Larrinaga Larrazabal

LAGUNARTEKO EUSKARA
HORNITZEN



ETB ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Euskara kolokialaren eskuliburuaren azal-hegalean irakur daitekeenez, Asier Larrinagaren kredoan "senidetasun unibertsala, berdintasuna, ezagutzaren partekatzea eta musikaren jainkozko-tasuna dira artikulu behinenak". 2019an doktoretza-tesia egin zuela ere irakur daiteke. ETBk euskararen normalizazioan egindako lana aztertu zuen, hain zuzen ere: "Beti esan da euskarazko telebista garrantzitsua izan dela euskararen normalizaziorako, baina gaiari buruzko literatura zientifikoan, hedabideak, eta ikus-entzunezko hedabideak bereziki, ez dira tresna garrantzitsutzat jo, 2000. urtera arte gutxi gorabehera".

"Ez dugu sortu behar gaztelaniaren ispilua den euskara kolokial bat"

Euskal filologia ikasten zebilela hasi zen EITBn Asier Larrinaga (Bilbo, 1965), hizkuntz zuzentzaile lanean. Handik zortzi urtera, 1999an, EITBko Euskara Zerbitzuko arduradun izendatu zuten, eta horretan dihardu ordudanik. "Zerbitzu txikia gara, enpresa honek duen dimentsiorako", aitortu du. *Euskara kolokialaren eskuliburu*a argitaratu zuen iazko udazkenean, eta aitzakia hori baliatu dugu harengana jotzeko.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Hizkuntza baten aldaera kolokialez liburu bat egin beharra ere... Ez da apur bat tristea?

Ez, beste hizkuntza batzuetan ere badaude halakoak. Sakabanatuta dagoen materiala batzea beti da praktikoa. Gu aspaldi gabiltza euskara kolokialaren kontuarekin. ETB nahiko berandu hasi zen barruko produkzioko serieak egiten, ez naiz gogoratzen urteaz, baina 90eko hamarkada zen. Eta ordutik gabiltza holako produktuetan erabili beharreko euskarari neurria hartzen. Hasieran, ahal zena egiten zen; gero, gogoeta gehiago egiten hasi zen. Baina kontu berria da gogoeta hori. Ez naiz gogoratzen *Goenkale* zer urtetan hasi zen [1994an], eta hasi zenean, modu batean hasi zen; ez dut esan nahi gogoeta egin gabe sortu zenik, planteamendu bat bazegoen, baina kolokialtasunaren kezketatik oso urrun, kezkek bete batzuk ziren. Gero *spin off* bat egin zen, *Hasiberriak*, eta orduan hasi ginen pentsatzen berezko hitz egiteko modu bat behar zela, kolokialtasunaren ildotik.

Orduan, *Goenkaleren hizkera artifiziale*gia zen batzuetan?

Ez zen euskara kolokiala. Euskara literarioa zen, liburuetakoa, eta ez diot modu peioratiboan. Izan ere, *Goenkaleren* gauza on bat izan zen liburuetakoa euskara hori ahazkora eramaten bete-betean asmatu zela.

Hala egin zen hizkera kolokialerako eredu argirik ez zegoelako?

Ez, hala egitea erabaki zelako, besterik gabe. Kolokialtasuna zer den da gakoa, batzuetan ez da oso ondo ulertzen. Kolokialtasuna da hitzunen artean informaltasun eta adiskidetasun harreman bat dagoela adierazten duen hizkera bat. Adiskide bik, inongo arau sozialik barik eta errespetuzko kontuetan ibili barik erabiltzen duten hizkera. Ez da egoera guztietarako. Askotan nahasten dira, eta ondo bereizi behar dira, kolokiala eta behe mailakoa. Kolokialak hitzunen arteko harremanarekin du zerikusia, eta behe mailakoak, hizkuntza zaintzea-



“Euskaraz posible da era kolokialean hitz egitea, bai modu sinesgarrian egin ere”, aldarrikatu du Larrinagak.

rekin edo ez. Behe mailakoa zainduaren kontrakoa da. Eta kolokiala, formalaren kontrakoa.

Adibidez?

“Ikusi dizut” esatea da behe mailakoa.

Batzuek “euskara txarra” esaten diote, zuzenean.

Hizkuntzari arreta ez ematea da. Eta kolokiala beste gauza bat da. Kolokialean “ikusi zaitut” esatea da normala.

“... biraorikan ez duen / euskara garbia”.

[Barre] Hizkera kolokialaren ezaugarri bat da oso gordinki egin daitekeela berba, eta horregatik sartzen dira hainbeste birao, hitz zatar... Esan izan da euskaraz ez dagoela horrelakorik, eta ez da egia. Arakatu behar da, bilatu, eta horregatik da garrantzitsua horrelako liburuak egitea. Bestalde, egia da gaztelaniaren aldean euskaraz beste modu batera esaten ditugula zatarkeriak. Gaztelania oso gordina da, eta biraozaleena nik ezagutzen ditudan hizkuntzen artean. Neurria hor jartzen badugu... Guk

premia batzuk ditugu buruan. Bata, euskaraz posible dela era kolokialean hitz egitea. Eta hori bakarrik ez, modu sinesgarrian ere egin daiteke. Askotan esaten da “erdaraz *'me cago en dios'* esaten den lekuan, euskaraz 'arranopola' ipini behar izaten dugu”. Hori betiko topikoa da. Sinesgarritasuna beste gauza batzuek ematen dute. Eta badira birao eta gordinkeria potoloak. Beharbada ez daukate gaztelaniatzko formen indarra, baina gogorak dira. Dena dela, hizkuntza bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Ingelesean, adibidez, ez dira esaten “*me cago en la virgen*” eta halakoak. “*Fuck*” eta “*damn*” esanez moldatzen dira.

Eta beste premisak?

Euskaldun guztientzat egitea, ahal den neurrian. Badakit oso gaitza dela, eta ez euskalkiengatik bakarrik. Guk, esaterako, “mola du” esatea bultzatu dugu, “gustatzen zait” esateko; jakina, gaztelaniatzko *molaren* kalkoa da. Batzuetan ez dago beste biderik. Euskaraz irainak eta biraoak baditugu, baina espide baloratioetan oso pobre gabiltza. Ez daukagu molde askorik “gustatzen zait” esateko,

are gutxiago modu kolokialean. Eta gaztelaniatz asko daude. Gure kasuan, alternatibak pentsatu behar dira.

Ikusleen iritzia heltzen zaizue, holakoek duten harreraz?

Batzuetan bai. Esate baterako, badakit “mola du” jende askori ez zaiola gustatzen. Baina beste batzuei bai. Beraz, euskaldun guztientzat izate horretan garrantzitsua da Iparralde-Hegoalde zera horretan sartzea, baina ez hori bakarrik: lehengo eta oraingo euskaldunentzako ereduak behar ditugu. Ez dugu sortu behar gaztelaniaren ispilu den euskara kolokial bat. Ahalegindu behar dugu euskarak daukana zaintzen.

Liburuan aipatzen diren baliabide ugari gaztelaniatik hartutakoak dira...

Gure lehenengo erreferentzia da, buruan daukaguna. Gure mailegu-biderik errazena, eta euskaldun gehienena, gaztelania da. Iparraldeko gauzak ere badaude liburuan, baina errealistak izan behar dugu. Dena dela, maileguak hartu behar dira, bai, baina zentzuarekin. ●



Euskara ikasi nahi ez duen EHUko ikerlaria, Irunen munipa izateko oposaketak prestatzen ari da




Gosaldu ostean, 'Euskal gramatika osoa' irakurtzeko ohitura du ikerlariak, eta horren ostean atsedentzua egiten du gauera arte.

"12 urte daramatzat EHU lanean eta gaur arte ez dut euskara ziurtagiri arrarorik behar izan", azaldu digu Antonio Probeta ikerlariak sumindurik. "Eta orain nahi dute 2022ko abendurako C1 ateratzea egunean soilik bi ordu eskainita? Ze jende bihozgabe da hau? Ez dira enteratu Eurokopa dagoela? Frantziako Tourra, El Conquis, Atrápame si puedes, Saber y Ganar... Egunak 24 ordu dituela, txo! Askatasun apur bat, mesedez. Maskara kendu eta tabernetan goizeko ordu biak arte egon gaitetzkeela esan digute-

nean, badatoz euskararen taliban hauek eta hegalak mozten dizkizute. Nah, ez du merezi unibertsitatean jarraitzeak!". Horren aurrena, Irunen munipa izateko oposizioak prestatzen hasiko dela adierazi digu, bere lana eta prestakuntza gehiago baloratuko dituztelakoan. "Probatuko dut, eta borra eta pistolen mundu hori gustuko badut, eskatuko dut Bilboko Zabalburuko ertzain-etxera promozionatzeko, ESANeko kideek esan didatenez, han gutakoontzat etorkizun polita ei dago eta". ●

Historiako lehen ikasgaia



IRUDIA: : TOM GAULD

SAREAN ARRANTZATUA

Mar-mar pour la patrie



Jarri eramateko




IRUDIA: @ORDUREBIZARRE | TWITTER

Errorea Matrixen




@SUEYCHOP | TWITTER



HODEIA EZ DA EXISTITZEN
iametza podcast

TEKNOLOGIA BURUJABETZAREN INGURUKO PODCASTA

Albisteak | Erreportajeak | Elkarrizketak | Gomendioak
Entzungai baleafunk.eus-en





LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.



ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:

KOMUNITATEA@ARGIA.EUS

ARGIAko kide egin
halako proiektuak bultzatzeko:

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA
943 37 15 45

ORAINGOZ: GASTEIZ · ARRASATE · IRUN · HONDARRIBIA · HENDAIA